

Berrigara



Imanol Bolinaga

Senatuan
azken urratsak

RB
RAMON BASTIDA

xey

SUKALDE ETA BAINUKO ALTZARIAK

Ibargarai 11-13 BERGARA.
Telefonoa eta faxa: 943 76 70 58



Gabon jaien ostean berreskuratu zure figura



Gorputz bakoitzari bere
argaltze-bidea

Dei egizu konpromezu barik
eta behar beste informazio
emango dizugu:

943 76 31 71

LILURA

Edertze Institutua

Bidekurutzeta 7. BERGARA



Berrigara **GIDA99**

Hilaren **15** ean BERRIGARArekin batera etxean

Gida komertziala
.....

**Partikularren
telefonoak**
.....

**Intereseko
telefonoak**
.....

Bergara eta Antzuolako
telefonoak

172 orrialdeko liburutxoan



Hator hator eta Erregeak

Iñigo Iñurrategi / ikaslea

Hator hator mutil etxera kantatzen hasi ginen eta konturatu orduko erregeak joan zaizkigu beraien lana beteta (?). Denboraldi bat kanpo aldean izan ondoren, gauza eta jende askorekin birtopatu behar izan dut, eta ia turroia gustora jateko astirik ere ez dut izan. Ingurukoek hamaika aldiz entzun behar izan dute nire lata, abentura eta desbenturak, eta ni, berri, urrutian faltan botatzen nituenak nireganatzen saiatu naiz, beti ere gauzei, pertsoneri, egoerei, aldaketa nabarmenik izan duten so eginez.

Egia esan, fisikoki aldaketa berri gutxi somatu dut: zenbait eraikuntza berri, kotxe pilaketak eta aparkatzeko arazoak... baina gainontzean aste bete soilik kanpoan egin banu gisa aurkitu dut ingurua.

Aldaketarik nabarmenena kale giroan somatu dut, eta zorionez gauzek hobera egin dutela somatu dut. Giroa lasaia da, aurpegi argiakoak ikusten

ditut, eta guztien artean itxaropen dizidira bat. Aldaketaren atarian ote gaude!

Zorioneko su-etena dela eta jaso ditugu lehenengo fruituak: herritarren artean erlazioak humanizatzen ari dira, egoera normalizatu batean behar luke tenera itzuli, eta horrek berak lagunduko digu gauzak are hobeto egiten.

“Eta herritarrek zein udalak ere badaukate zer egina gazteekin zubi lanean, kontu zaharrak ahaztu eta Bergarako gazteak itxaropentsu ikusten duten gazte lokal baten proiektuaren erronkari aurre egiteko”

Larunbat honetan ere badugu deialdia Bilbon, presoan eskubideen aldarrikapena hamaikagarren aldiz kalera tzeko, eta zenbaiten itsukeria ilun irrazionalean argi pixka bat jartzeko asmoz. Batzuzentzat egoera jasan ezina ere gertatzen ari den arren, prozesua itzulerarik gabeko aurrera bidean sartu zaigu, eta denbora kontua izango da justizia ere gurera iristea. Eta denbora iritsi bitartean hobe genuke guztion artean zubilanak egitea, arestiko zauriei sendabide azkarragoa hel dakien.

Eta herritarrek zein udalak ere badaukate zer egina gazteekin zubi lanean, kontu zaharrak ahaztu eta Bergarako gazteak itxaropentsu ikusten duten gazte lokal baten proiektuaren erronkari aurre egiteko. Eta arren eskatuko nioke erabakiak hartu behar dituenari proiektu hori aurrera bultzatu behar badu ez dadila izan interes politiko hutsagatik, gazteongan sinesten duelako baizik. Ikusiko dugu. ■

■ barruan



Imanol Bolinaga

Senatorea Madrilen

“Lizarrako Akordioa ahal den leku guztietara eraman beharko litzateke”

17.



Roberto Limeres

Tenislaria

“Bergaran tenis pistak falta dira eta jende asko Oñatira joaten da tenisean jokatzera”

21.



Freddy Rivas

Pizza banatzailea (kubatarra)

“Euskal Herritik, emakumeak eta janaria nabarmenduko nituzke”

29.

orain dela...

BERGARAN GERTATUA

1860. Urtarrilaren 4an Telesforo Aranzadi antropologoa jaio zen. Miguel Unamunoren lehengusua. Mundu mailako zientzia-elkarte askotako partaide izan zen. Bere ohoretan dute izena Aranzadi zientzia-elkarteak eta Bergarako Aranzadi ikastolak.

EUSKAL HERRIAN GERTATUA

1937. Urtarrilaren 1ean *Eguna* euskarazko egunkaria sortu zen Bilbon.
1981. Urtarrilaren 1ean Manuel Irujo jeltzalea hil zen Iruñean.
1813. Urtarrilaren 4an Luis Luciano Bonaparte hizkuntzalari jaio zen Ingalaterran.

MUNDUAN GERTATUA

1919. Urtarrilaren 5ean Alderdi Nazional Sozialista Alemana sortu zen. Adolf Hitler zaspigarraren alderdikidea izango da.

zozketak

BONO LOTO

Eguakitzza 1

1-24-36-42-46-48 (osag.16/itz.0)

Astelehena 4

3-13-15-20-23-48 (osag 46/itz.1)

Martitzena 5

32-35-36-41-44-46 (osag.1/itz.1)

Eguaztena 6

8-11-18-24-31-47 (osag.7/itz.8)

PRIMITIVA

Zapatua 2

1-7-11-23-34-47 (osag.37/itz.2)

Domeka 3 *Saritzarra*

2-4-13-16-32-43 (osag.37/itz.3)

ONCE

Eguakitzza 1: 08.567 (039 seriea)

Astelehena 4: 80.475

Martitzena 5: 78.456

Eguaztena 6: Jaieguna

BESTE BATZUK

Batzokiko zozketa

1. Mendiko bizikleta: 4.958

2. Saskia: 3.967

Eguraldia

Igeldoko meteorologi behatokia



Aste honetako temperatura epelak eta eguraldi eguzkitsua ahaztu beharko dugu asteburuan euria eta hotza egingo baitu eta 600 metrotik gorra elurra. Temperaturak behera egingo du eta haizeak ipar-mendebaldetik joko du arin.

Ilargiaren aldiak



Ilbete: urtarrilak 2



Ilbehera: urtarrilak 9



Ilberri: urtarrilak 17



Ilgora: urtarrilak 24

Eguzkia

Domeka, urtarrilak 10



Sortu: 08:42



Gorde: 18:11

Temperaturak eta euria Bergaran

Luis Mari Agirre

	max.	min.	euria
	°C	°C	l/m ²
Eguna 31	11	5	1,2
Eguakitzza 1	10	6	-
Zapatua 2	12	2	-
Domeka 3	14	3	-
Astelehena 4	18	6	-
Martitzena 5	21	3	-
Eguaztena 6	20	0	-

bertako berbak

Juan Martin Elexpuru

Andafuera

Andafuerako soiñekua jantzi. Etxetik kanpora ibiltzeko ohitura handia hartu duten pertsonengatik esan ohi da, erdi brometan.

- *Pantxikak, alargundu zanian andafuerako soiñekua jantzi zeban da arrezkero majo dabil.*



JOSU OKINA

hamaika ikusteko jaio ginen!

Azeri moldatuak

Long Islandeko (New York) Connetquot Rover State Park Preserve-en, ohituraren ohituraz, azeri gorriak lasai asko ibili ohi dira gizaki artean. Eta bada azeriak gizakiaren presentziara hainbestearinoko naturaltasunez moldatu izanaren beste arrazoi bat: Connetquot-en ez da ehizarik egiten. Inguruetan harraparirik ez ibiltzeak ere lagundu du azeriek perkean iraun dezaten.

Farmaziak

Eguakitzza 8:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Zapatua 9:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Domeka 10:

GUALLAR. San Antonio 5. Tf. 943 76 11 05

Astelehena 11:

ESTELLA. Matxiategi 5. Tf. 943 76 19 63

Martitzena 12:

MOZOS. San Pedro 4. Tf. 943 76 12 15

Eguaztena 13:

CAMACHO. Oxirondo 4. Tf. 943 76 11 74

Eguna 14:

PUY. Barrenkalea 25. Tf. 943 76 16 87.

Ogia

Domeka 10: Konde.

Telefonoak

OSASUNA / LARRIALDIAK

SOS deiak	
DYA	943 78 71 55
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdia	943 46 11 11
Anbulatorioa (txanda)	943 76 24 40
Anbulantzia	943 55 49 82
Udalzaingoa	943 77 91 08
Ertzaintza	943 76 53 40
Suhiltzaileak	943 78 28 08
Osasun Etxea	943 76 24 40
Arrasateko ospitala	943 79 53 08
Asepeyo	943 76 16 40
Pakea	943 76 13 48
Angiozarko medikua	943 78 90 08
Antzuolako medikua	943 76 62 08

GARRIAOK

Euskotren	943 45 01 08
PESA	902 10 12 08
Taxiak	943 76 19 58
RENFE	943 28 25 98

UDALA

Udaletxea	943 77 91 08
Udal Artxiboa	943 77 91 08
Igerilekuak	943 76 20 58
Kultur Etxea	943 77 91 58
Liburutegia	943 77 91 08
Mizpirualde Egoitza	943 76 13 08

BESTELAKOAK

Epaitegia	943 76 14 08
Erregistroa	943 76 13 08
Jardun	943 76 28 08
Jubilatuaren Etxea	943 76 21 48
Postetxea	943 76 28 08

ESKER ONA

Jose Umerez Guridi

Bergaran hil zen
1998ko abenduaren 10ean,
86 urte zituela.



Hileta-elizkizunetara joandakoei
eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno
eskerrik asko sendikoen izenean.

zorian agurrak



Basi Candamio
Urtarrilaren 9an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Aranako lagunak.



Mikel Mujika
Urtarrilaren 9an
4 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Aitxita Jose Luis
Abenduaren 31n
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Unai Garmendia
Abenduaren 31n
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Rakel Albarez
Abenduaren 29an
9 urte.
Urte askotarako!
Gurasok eta lker.



Maria Jesus Martinez
Abenduaren 26an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Etxekoak.



Gemma Iturralde
Urtarrilaren 6an
urtebetetzea. Urte
askotarako!
Etxekoak.



Markel Elkoroiribe
Urtarrilaren 6an
8 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Aitziber Plazaola
Urtarrilaren 7an
13 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Asier
Urtarrilaren 9an
3 urte.
Zorionak txikito!



Imanol Retolaza
Urtarrilaren 4an
3 urte. Urte
askotarako! Marina
eta gurasok.



Olatz Fernandez
Urtarrilaren 10ean
9 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Jose Manuel Serrano "Epi"
Urtarrilaren 8an
urtebetetzea. Urte
askotarako! Familiakoak.



Eukene Labaka
Urtarrilaren 8an
4 urte.
Urte askotarako!
Markel.



Jesus M. Urzelai
Abenduaren 8an
37 urte. Urte
askotarako! Miren,
Aitor eta Ander.



Miren Urzelai
Abenduaren 11n
5 urte.
Urte askotarako!
Aitor eta Ander.



Mertxe Alberdi
Urtarrilaren 1ean
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Asier eta Ainara.



Arantzazu Ilzarbe
Urtarrilaren 23an
14 urte. Urte
askotarako! Osaba-
izebak, Asier eta
Ainara.



Natividad Niño
Abenduaren 25ean
47 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



Venancio Tena
Abenduaren 27an
54 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



David Bernal
Urtarrilaren 9an
24 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



Ainhoa Rodriguez
Urtarrilaren 4an
urtebetetzea.
Urte askotarako!
Familiakoak.

jaiotakoak

BERGARA
Garazi Ibarra Zubizarreta
Abenduak 16
Gorka Egaña Morras
Abenduak 20
Amaia Elortza Agirregabiria
Abenduak 22

hildakoak

BERGARA
Kontxita Larrea Elkoroiribe
Abenduak 22, 75 urte
Angeles Alcaraz Alors
Abenduak 20, 75 urte
Joaquina Elortza Aiestui
Abenduak 26, 87 urte
Martin Azkarateaskasua Larrañaga
Urtarrilak 2, 82 urte
Ines Amuskibar Mendizabal
Urtarrilak 3, 87 urte
Markos Ortiz de Urbina Beitia
Urtarrilak 4, 77 urte

ANTZUOLA
Maria Sanpedro Villar
Abenduak 25, 86 urte
Juana Laskurain Legorburu
Abenduak 29, 96 urte

PESA autobusak

Bergara-Antzuola. Lanegunak: 08:00, 09:00, 11:00, 14:00, 17:00, 18:00, 20:30. Zapatuak: 08:00, 09:00, 14:00, 18:00, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 09:30, 10:00, 18:00, 18:30.

Antzuola-Bergara. Lanegunak: 08:30, 09:40, 16:40, 17:15, 18:00, 20:40. Zapatuak: 08:30, 18:00, 20:40. Domeka eta jaieg.: 10:00, 18:00.

Bergara-Arrasate-Eskoriatza. Lanegunak: 07:35, 08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Zapatuak: 09:35, 11:35, 13:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:30*, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino). Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:35, 16:35, 18:35, 21:05*, 21:35* (*Arrasateraino).

Bergara-Gasteiz. Lanegunak: 06:45, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 16:00, 19:00, 19:15, 21:15. Zapatuak: 07:15, 08:15, 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 19:00, 19:15, 21:15. Domeka eta jaiegunak: 09:15, 11:15, 14:15, 15:15, 17:15, 19:00, 19:15, 21:15.

Gasteiz-Bergara. Lanegunak: 05:45, 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 14:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Zapatuak: 06:30, 07:30, 08:30, 12:30, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 09:00, 10:30, 12:20, 16:30, 18:30, 19:30, 20:30.

Arrasate-Bergara. Lanegunak: 06:05, 06:30, 07:05, 07:20, 08:05, 08:20, 09:05, 09:20, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 17:20, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Zapatuak: 07:20, 08:05, 08:20, 10:05, 12:05, 13:20, 14:05, 14:20, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20. Domeka eta jaiegunak: 09:20, 09:50, 11:20, 13:05, 15:05, 17:05, 19:05, 19:20, 20:05, 20:20, 21:20.

Bergara-Oñati. Lanegunak: 07:35, 09:35, 13:35, 16:35, 18:35, 19:35, 20:45. Zapatuak: 20:45. Domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Oñati-Bergara. Lanegunak: 07:10, 08:00, 13:10, 13:55, 16:00, 17:10, 19:10. Zapatu, domeka eta jaiegunak: ez dago zerbitzurik.

Bergara-Eibar. Lanegunak: 06:20, 07:20, 08:20, 09:20, 09:35, 10:20, 11:20, 12:20, 13:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Zapatuak: 08:20, 09:35, 10:20, 12:20, 13:35, 14:20, 15:20, 16:20, 17:20, 17:35, 18:20, 19:20, 20:20, 21:35. Domeka eta jaiegunak: 09:35, 11:35, 13:20, 13:35, 15:20, 17:20, 17:35, 19:20, 19:35, 20:20, 21:35.

Eibar-Bergara. Lanegunak: 06:15, 07:00, 08:00, 09:00, 10:00, 10:45, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Zapatuak: 06:45, 09:00, 10:45, 11:00, 13:00, 14:45, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 18:45, 19:00, 20:30, 21:00. Domeka eta jaiegunak: 08:45, 10:45, 14:00, 14:45, 16:00, 16:45, 18:00, 18:45, 20:30, 21:00.

Bergara-Donostia (Autopistatik). Lanegunak: 06:45, 08:35, 13:35, 14:35, 15:35, 19:35. Zapatuak: 07:35, 08:35, 13:35, 14:35, 19:35. Domeka eta jaiegunak: 10:05, 19:35.

Bergara-Donostia (Tolosatik). Lanegunetan: 09:00, 18:00. Zapatuak: 09:00, 18:00. Domeka eta jaiegunak: 10:00, 18:00.

Donostia-Bergara (Autopistatik). Lanegunak: 05:45, 08:15, 12:30, 15:00, 18:00, 19:30, 20:45. Zapatuak: 08:15, 12:30, 18:00, 19:30, 20:45. Domeka eta jaiegunak: 18:00, 20:45.

Donostia-Bergara (Tolosatik). Lanegunak: 07:00, 16:30. Zapatuak: 07:00, 16:30. Domeka eta jaiegunak: 08:30, 16:30.

Bergara-Bilbo. Lanegunak: 06:30, 08:40, 14:30, 18:10. Zapatuak: 07:15, 08:40, 14:30, 18:10. Domeka eta jaiegunaak: 10:10, 14:30, 18:10, 19:15.

Bilbo-Bergara. Lanegunak: 08:00, 12:30, 17:00, 20:00. Zapatuak: 08:00, 17:00, 20:00. Domeka eta jaiegunak: 09:00, 12:30, 17:00, 19:30, 21:00.

ANTZERKIA

► **Maskarada taldearen "Nerudaren postaria"** datorren eguakitzean, hilak 15, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

MUSIKA

► **"Apoaren edertasuna"**, Joseba Tapia eta Koldo Izagirrerekin gaur, eguakitzan, 22:30etan Elorrioko Arriola aretoan.

ERAKUSKETA

► **Bergarako eskultoreen erakusketa** domekara arte Kultur Etxean, goizez 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldez 18:00etatik 20:00etara.

► **Dani Laskurainen margo erakusketa** Nahikari tabernan.

LEHIAKETAK

► **Amodiozko Gutunen VII. Berrigara Lehiaketa.** 1984an edo lehenago jaiotako edozein pertsonak har dezake parte. Lanen luzera ezin izango izango da bi orrialde baino gehiagokoa izan. Irabazleak 75.000 pezeta eskuratuko ditu, bigarrenak 40.000 eta bergarar onenak 25.000 pezeta. Lanak emateko

DIAPOSITIBA EMANALDIA

"Kordadako lagun galdua"

Noiz: gaur, eguakitzan, 19:00etan

Non: Novedades aretoan

Sarrera: doan

Felix eta Alberto Inurrategik diapositiba emanaldia eskainiko dute gaur arratsaldean Bergaran. "Kordadako lagun galdua" izenburupean, Inurrategitarrek aurten Manaslun, Dhaulaghirin eta Jala Perin jasotako irudiak erakutsiko dituzte. Jon Lazkano mendizale bergararrak ere aipatutako espedizioan hartu zuen parte eta argazkietako batzuk Kutzak kaleratu berri duen "Gure Himalaya" liburuan ikus daitezke. Era berean, Himalayako argazkiekin ikus-entzunezko berri bat osatu dute atxabaletatarrak eta hain zuzen ere lan horren emaitza ikusteko aukera izango da gaur Novedades aretoan. Iaz ere Bergaran izan genituen Inurrategitarrek eta zine aretoa jendez gainezka egon zen orduan.

Dagoeneko bi anaiak ondo baino hobeto ezagutzen dute Himalayako mendikatea. Felix (1967an jaioa) eta Alberto (1968) gazteak baina esperientzia handikoak ditugu. 1991n ekin zieten Himalayako espedizioei eta Makaluko (8.483 m.) gailurra zapaldu ondoren, Everestera (8.848 m.) igotako espediziorik gazteena izan ziren 1992an. Jarraian beste hainbat gailurretara iritsi ziren: K2 (8.611 m., 1994), Cho Oyu (8.206 m.) eta Lhotse (8.511 m.) 1995ean, Kangchenjunga (8.586 m.), Sisha Pangma (8.046 m.) eta Broad Peak (8.047 m.) 1996an eta, azkenik, Dhaulahirikoa (8.167 m.) aurten. Espedizio bakoitzeko 3.000 argazki ateratzen dituzte eta aukeratutako irudi onenekin zortzi ikus-entzunezko sortu dituzte jadanik.



Inurrategi anaiak aurkeztuko dute diapositiba emanaldia.

azkenengo eguna eguaztrena, hilak 13, izango da. Argibideak 943 76 36 61 eta 943 76 08 19 zerbakieta.

► **Bergarako Orkesta Sinfonikoak anagrama lehiaketa** deitu du.

Bergarako edozeinek parte

hartu ahal izango du. Irabazleak 25.000 pezeta jasoko du. Lanak DIN A4 edota DIN A3 orrietan jasoko dira urtarrilaren 29ra arte Banda eta Orkestaren entsaio gelan (Musika Eskola. Espoioia, z/g. 20570 Bergara).

► **Jose Maria Arizmendiarrrieta XIII. Lehiaketa,** irakaskuntza ertainetako Euskal Herriko ikasleei zuzenduta. Lehiaketaren gaia: "Amets bat eraikiz". Narrazio-informazio testuak (15 orrialde gutxienez) zein saiakerak

**OILAGORRA
TABERNA**

Barrenkalea 21 BERGARA

ETXE BERRIA

ERLOJUTEGIA-BITXITEGIA

Bidekurutzeta 16 BERGARA
Tf. 943 76 23 94 / 943 76 12 65

**ONENA
TINTATEGIA**

Barrenkalea 29 BERGARA

(25 orrialdetik gorakoak) aurkez daitezke euskaraz zein gaztelaniaz. Lanak bidaltzeko epea maiatzaren 17an bukatuko da. Argibideak 943 79 31 32 zerbakian.

► **HIES Ekimena** taldeak "HIESa edo sexu segurua" gaiaren inguruko komiki lehiaketa deitu du. Bi kategoria izango dira: 15-18 urte bitartekoentzat lehena eta 19 urtetik gorakoentzat bigarrena. Lanak entregatzeko epea martxoaren 1ean bukatuko da. 943 76 26 99.

DEIAK

► **Hitzaldia. Komite Internazionalistak** taldeak antolatuta, Eric Toussaint idazleak "Kanpo zorra hirugarren munduan" izenburuko hitzaldia eman- go du eguaztenean, urtarrilak 13, 19:30etan Kultur Etxean.

► **Odol ateraldia** eguaztenean, urtarrilak 13, 18:30etan Seminarioko lokalean.

► **Alderdi politikoek deituta**, euskal preso- en eskubideen aldeko manifestazioa bihar, zapatua, Bilbon, arratsaldeko 5etan. HBk antolatutako autobusa 15:15etan aterako da Frontoitik. Izen-ematea ohiko lekuetan.

► **Bergarako EAJ**ko Uri Buru Batzarrak autobusa antolatu du bihar zapatua, hilak 9, euskal preso- en eskubideen alde Bilbon, 17:00etan, izango den manifestaziorako. Autobusa 15:00etan aterako da autobus geltokitik. Joan nahi dutenek Batzokiko tabernan eman dezakete izena.

OHARRAK

► **Mariaren Lagundiak**, 1999an ospatuko duen 200. urteurrenari begira antolatutako ekitaldien artean, argazki erakusketa egin nahi du. "Enseñanza"ko ikasleak agertzen diren argazkiak, eskurtsioetakoak, Mariaren Lagundia agertzen den garai bateko Bergarako argazkiak eta oraintsuagokoak erakutsi nahi dituzte. Horrelako argazkiak dituztenei erakusketan laguntzeko dei egiten zaie. Kopia atera ondoren orijinal guztiak itzuliko dituzte.

KINTADAK

► **1935**ean jaiotako baz- karia Antxonin urtarrilaren 24an. Izen-ematea (deposito- toa 2.000 pta.) Antxonin.

► **1973**an jaiotako baz- karia otsailaren 6an Antxonin. Izen-ematea Antxonin (deposito- toa 1.500 pta.) otsailaren 1era arte.

Z I N E A

KARTELDEGIA

BERGARA. Novedades Ojos de serpiente

Eguakitza: 22:30.
Zapatua: 22:30.
Domeka: 19:30, 22:15.

Mulan

Zapatua: 17:00, 19:30.
Domeka: 17:00.
Astelehena, ikuslearen eguna: 19:30.

Los años barbaros

Eguena, zine-kluba: 20:00.

ARRASATE. Alai zinema

La mascara del zorro

Zapatua: 17:00, 19:30, 22:00
Domeka: 17:00, 19:30, 22:00.
Astelehena: 19:00, 21:30.

Martitzena, ik. eguna: 19:00, 21:30.

EIBAR. Unzaga

Very bad things

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 17:00, 19:30, 22:15.
Domeka: 17:00, 19:30, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena: 19:30, 22:15.
Eguaztena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

EIBAR. Rialto

Por siempre jamas

Eguakitza: 22:15.
Zapatua: 19:00, 22:15.
Domeka: 19:00, 22:15.
Astelehena: 19:30, 22:15.
Martitzena, ik. eguna: 19:30, 22:15.

ELORRIO. Arriola

Negociador

Zapatua: 22:30.
Domeka: 20:00.
Astelehena: 20:00.

Limpeza en seco

Eguena, zine-kluba: 20:15.

AZKOITIA. Baztortxo

Marius et Jannette

Eguakitza: 22:00.

Regreso al paraíso

Zapatua: 22:00.
Domeka: 17:15, 19:30, 22:00.
Astelehena: 20:00.

OJOS DE SERPIENTE

Zuzendaria: Brian De Palma.

Aktoreak: Nicolas Cage, Gary Sinise, Carla Gugino.

Brian De Palma zuzendari os- petsuak (*Doble cuerpo*, *El precio del poder*) errodututako azken filmea. Boxeo borro- kaldi batean Estatuko Defen- tsa Idazkariaren aurkako aten- tatua izango da eta *Rick San- toro* (Cage) eta *Kevin Dunne* (Sinise) polizia aginduko die- te hilketaren ikerketa.

MULAN

Zuzendariak: Barry Cook eta Tony Bancroft.

Txinatar leienda ezagun bate- an oinarrituta, marrazki bizi- dunetako filme honetan ak- zioa eta umorea tartekatzen dira. Ejertzito Inperialak Mu- lan-en aita gerrara joateko deituko du baina neska gazte- ak nahiko zahartuta dagoen bere aitaren tokia hartuko du. Mushu bere dragoiarekin ba- tera, Mulanek sekulako ado- rea erakutsiko du...

LOS AÑOS BARBAROS

Zuzendaria: Fernando Colomo.

Aktoreak: Jordi Molla, Ernesto Alterio, Hedy Burres, Allison Smith.

1940ko hamarkadan, Franco- ren garaian girotutako filmea. Unibertsitatean pintada bat egin ondoren bi gazteri zortzi urteko gartzela zigorra ezarri- ko diete. Hala ere ez daude prest beren urterik onenak es- petxean igarotzeko eta, lagu- nen laguntzaz, ihesa presta- tzeari ekingo diote.

BERRIGARAK ez du gerta litezkeen emanaldi aldaketen erantzukizunik.

ANTIA

HARATEGIA URDAITEGIA

Txahal, idi, txerri, bildots, untxi eta baserriko oilaskoak.

Matxiategi 8 ☎ 943 76 15 09

INFERNUKUA TABERNA

Masterreka 23 ☎ 943 76 18 49

Deco-Textil ZANGITU

Etxerako lenteria
Alfonbra nazionalak eta
ekialdekoak
Bisiloak, tapizak, eta abar.

Herrilagunak 3-5
☎ 943 76 08 69

Umeak eta presoak Gabonetako protagonistak

Errege bezperako gauean sekulako jendetza

Gabonetakoak, bereziki haur eta gazte-
txoentzako egunak
izan ohi dira. Inork baino
ilusio handiagorekin har-
tzen dituzte opor egun
hauek eta, bestalde, Olen-
tzero eta Erregeen oparien
zain irrikatzen egoten dira.
Gainera, egun hauetan eu-
rei zuzendutako ekitaldi
mordoa antolatzen dira.
Aurten ere, kiroldegian eta

igerilekuetan haurrentzako
antolatutako jolas jardue-
tan parte hartze handia izan
da eta Bizar Zuri eta Errege-
en kabalgatak sekulako
ikusmina sortarazi dute.

Umeak, Olentzero, Bizar
Zuri eta Erregeez gain, pre-
soak izan dira aurtengo Ga-
bonetako protagonistak.
Euskal Herrira ekartzea es-
katzeko, hainbat ekitaldi
antolatu dira. Gabon egun





Eugenia eta Iñaki Etxera Plataforma" k antolatutako kontzentrazioan.

Bestalde, AEKk Gabon egunean antolatutako zozketan Martin Garitano eta bere kuadrilakoei tokatu zitzaizen marisko sorta.

Horretaz gain, Errege bezperan jendetza handia ibili zen, ohikoa den moduan, gauean kalean. Jate-txe guztiak toperaino, tabernetan ezin sartu eta autoak edozein tokitan aparkatuta. Gazteentzako lokal eske dabilzan gazteek txozna jarri zuten Kruz Gallastegin. Bestalde, batek baino gehiagok esan digu biharamonean auto asko agertu zirela kanpoko ispiluak puskatuta ziztuztela. Horrelakoak ere ohikoak bihurtzen ari dira... ■

an eta Gabon Zahar egunean kontzentrazioak egin ziren San Martin plazan. Hilaren 24koan, kalean kantari ibili ziren hainbat taldek bat egin zuten preso senide eta lagunekin eta aurrekua ere dantzatu zen. Abenduaren 31n, bestalde, Udalbatzak, alkatea buru, parte hartu zuen "Etxaniz, Maria



**BATZUK LOTSAGARRI
IBILTZEN DIRA**

Udalerrian turismo eta trafiko seinaleak jartzeko egitasmoa abian du Udalak

Eusko Jaurlaritzak hiru milioi eta erdi pezeta eman ditu

Udalerrian turismo eta trafiko seinaleak jartzeko 3,5 milioi pezeta emango dizkio Eusko Jaurlaritzak Bergarako Udalari.

Eusko Jaurlaritzako Merkataritza, Kontsumo eta Turismo Sailak, turismo seinaleak jartzeko planak diruz laguntzeko dekretua kalera-tu zuen martxoan eta Bergarako Udalak herriko hainbat tokitan turismo eta trafiko seinaleak jartzeko plana egina duenez, diru laguntzak eskatu zituen. Hain zuzen ere seinaleak jartzeko 11 milioi pasatxo inbertitzeko asmoa dauka Udalak hurrengo hilabeteetan. Jaurlaritzatik jasotako laguntzarekin errezago aingo zaio aurre gastuari.



Hau bezalako panelak ipiniko dira herriko hainbat lekutan.

Turismo seinaleek eta auzoetakoek izango dute lehenetasuna. Xabier Aranburu museologoak askotan aipatu du arlo honetan Bergarako duen gabezia, "seinalizazio egokia duen herri batean,

egiten diren turismo kontsultak bikoiztu egiten dira" adierazi zion Berrigarari uztailean. Trafikoko seinaleak aurrerago berriztuko dira.

Udalaren planean zehazten denez, 40 seinale eta

4 panel handi jartzea aurrekusten da. Lau panel handiak herriaren lau sarreran nagusietan jarriko dira. "Bergara hiri monumentala" idatziarekin batera, herriko hiru gune turistiko erakutsiko dira.

AGARREGO GARAIXEA

Horretaz gain, interes turistiko guneak iragartzeko seinalizazio egokia jarriko da herriko hainbat puntutan. Eñate baterako, Agarreko garaixera joateko unehonetan ez dago seinalizazio egokirik eta hori zuzendu egingo da.

Herri barruan, bestalde, kalifikatutako monumentu guztietan plaka bat ipiniko da eta bertan izen ofiziala eta etxearen data jarriko dira. ■



Arbolak erdibituta agertu ziren abenduaren 27an Gorkako kantina inguruan.

Arbola moztuak eta ekologisten kontrako pintadak Gorlan

Gorlako parkean, kantina berriaren aparkalekuan, hiru arbola txiki moztuta eta ekologisten kontrako pintadak agertu ziren joan zen abenduaren 27ko goizean. "Mas puestos de caza, menos arbolitos", "Un puesto jodido un arbolito menos" eta "Caza bai, puestos bai, parque no; ecologistas maricas" pintadak irakur zitezkeen kantineko aparkalekuko zoruak.

Herriko ehizatriek eta Victoriano Gallastegi alkateak salatu egin dute ekintza

hau eta herritarren laguntza eskatu dute arbolak moztu eta pintadak egin dituztenak nortzuk izan diren argitzeko. Azkenaldian ehiza postuak birritan bota dituzte eta bestalde, ez da lehen aldian era honetako pintadak eta arbola moztuak agertzen direna. Iaz lau zuhaitz moztu agertu ziren erditik moztu kantina zaharren eta Elso arteko bidean; horretaz gain, kantina berriaren asperritik daude ekologisten kontrako eta ehizaren kontrako pintadak.

Hiru milioi Mitch-ek kaltetutakoentzat

Udalak hiru talderi eman die dirua

Mitch hurakanak kaltetutakoei laguntzeko Udalak emango dituen hiru milioi pezetak, herrian lanean diharduten Gobernuz Kanpoko hiru erakundeen artean banatuko dira.

Oscar Romero solidaritate batzordeak, Fisc-Nikaragua Fundazioak eta Komite Internazionalistak taldeak milioi bana jaso dute Udalaren partetik ertamerikan Mitch hurakanak kaltetutakoei laguntzeko.

Hiru erakundeetako ordezkariak adierazi dutenez, era honetan banatuko da bergarrek emandako dirua: Fisc erakundeak, Nikaraguako hegoaldean zementuzko etxeak eraiki eta nekazaritzarako lurak berreskuratzeko; Oscar Romero eta Komite Internazionalistak, berriz, janariak lor-

tzeko eta etxeak egiteko erabiliko dute diru laguntza. Gabonak arte, ia 8 milioi pezeta batu dituzte Gobernuz Kanpoko Erakundeek herrian zabalduetako kontu korronteetan.

HITZALDIA DATORREN ASTEAN

Mitch hurakanaren kontuaren inguruan ari garenez, esan dezagun, Komite Internazionalistak honen gaineko hitzaldia antolatu duela datorren asterako. Erik Toussaint, "Deuda externa en el tercer mundo: las finanzas contra los pueblos" liburuaren egilea, Kultur Etxean izango da datorrez eguaztenean, hilak 13, arratsaldeko 7:30etan. Lurralde aberatsek hirugarren munduko herrialdeen kanpo-zorra barkatzeko edo ez barkatzeko hartutako jarrereri buruz mintzatuko da. ■



Gobernuz Kanpoko hiru erakunderen artean banatuko da dirua. ARTXIBOA

Abenduaren 27tik aurrera berriturik gatoz

BESTE BATZUK JANTZI EGITEN GARA

Egunkaria
euskaldunon

Berrigara

350 zenbakia.
1999ko urtarrilaren 8a.

Errotalde Jauregia. 20570 Bergara
Telefona: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
E-mail: berrigar@sendanet.es
Argitaratzailea: JARDUN Elkarte

Zuzendaria: Eneko Azkarate.
Erredakzioa: Edu Mendibil, Aitziber Azkondo. **Maketazioa:** Iñaki Iturbe.
Publizitatea: Kristina Romero.
Harpideta: Nerea Lazpiur.
Testuen zuzenketak: Estepan Plazaola, Alex Labaien.
Erredakzio kontseilua: Miguel Angel Elkorobereziabar, Alex Labaien, Gorka Elortza. **Komikiak:** Bittor Rodriguez, Gorka Ortega & Jon Alvarez, Alex Ugalde, Unai Azkarate.
Kolaboratzaileak: Juan Martin Elexpuru, Josu Okina, Luis Mari Agirre, Imanol Sorondo.
Banaketa: Txantxangorri taldea.
Inprimategia: Gertu Koop. Elk. (Zubillaga, Oñati).

Azaleko argazkia: Berrigara.

Tirada: 5.100 ale.
Copyright: BERRIGARA.
Lege gordailua: SS 50/91.
ISSN: 1130-6599

BERRIGARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Erakunde hauen laguntza:



Bergarako Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia



Eusko Jauriaritzako Kultura saila

gutunak

Ezer adierazi nahi baduzu, ekarri edo bidali iezaguzu zure gutuna. Berrigara astekaria, Errotalde Jauregia z/g 20570 Bergara. Faxez: 943 76 29 77. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

EIBAR-GASTEIZ (MALTZAGA-URBINA) AUTOBIDEA

Maltzaga-Urbina egitasmoa aztertzeko IGP-NIP taldeak osatu ziren 1994ko urtean. Idatzi hau sinatzen dugunok izan ginen aukeratuak, taldeen irizpena Eusko Jauriaritzaren eta Gipuzkoako eta Arabako Foru Aldundien ordezkarien aurrean aurkezteko. Erakunde ofizialen ondorengo jokabidea NIPetako erabakien aurkakoa zenez, bide berriaren Trazatu Proektuaren jendeaurreko erakustaldia aprobetxatuz, eta IGP-NIPetako irizpenean oinarrituz, alegazio bat aurkeztu genuen Gipuzkoako Foru Aldundian 1997ko irailean, genuen ordezkari zuzen erabiliz.

Alegazio hartan zera adierazten genuen:

a. Foru Aldundiak bide zaharraren konponketari eman beharko liokeela lehentasuna, berriaren proiektuaren onarpena atzeratuz.

b. Gasteiz-Eibar autobidearen proiektua ez litzatekeela onartu behar, baldin eta bere finantziatorako bidesari berriarik edota Bilbo-Behobia autobidearen bidesariaren luzapena beharrezkoak balira.

Urtebete pasatu da alegazioa aurkeztu genuenetik eta ez dugu erantzunik jaso.

Bestalde, Trazatu Proektua onartu zen, lurra desjabetzeko izapide ofizialak hasi dira, obraren lehen zatiaren hasiera 1999ko udaberrirako iragarri da, eta Administrazioak dio bide berria peajeduna izango dela eta Bilbo-Behobia autobidearen bidesariak berrogei urteko luzapena izango duela.

Zuhurtasunez jokatu dugu orain arte, baina hau guztia ikusita, jendearen aurrean honako salaketa hau egitea erabaki dugu:

a. IGP-NIP egitasmoa munduko gauzarik demokratikoa balitz bezala aurkeztu zuten agintariek, talde haietako partaideak izendatuz herritarren ordezkari zuzenak. Gure erizpidea erabakiorra izango zela hitz eman ziguten. Gerora guk erabakitakoari ez diote jaramonik egin. Burla egin digute.

b. Gure alegazioarekin gertatu den bezala beste ehundaka alegaziok ez dute erantzunik jaso. Berriz ere agerian gelditu da gure politikoak eta erakunde ofizialak oso urruti daudela ordezkari-

ezten omen duten herritarren gainetik. Herritarren partaideen tze zuzenaren alde hitz egitea dute eta gero ez dute erantzukizunik hartzen.

Eta bukatzeko zera adierazi nahi dugu:

1. IGP-NIP taldeetan, bide zaharraren konponketaren alde jende gehiago zegoen beste bide berri bat egitearen alde baino.

2. Konponketaren lanean egiteko "Gatzaga-Landa" taldeak aurkeztutako proiektua egokitzat jo zen.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak badu dagoeneko diru-izendapen nahikorik obrak hori burutzeko. Kanpo finantziazio berririk ez da beharrezkoa.

4. Deba bailarak badu eskubidea peajerik gabeko bide duina izateko.


5. Bilbo-Behobia autobidea soberan ordainduta izango dute bere erabiltzaileak 2003. urtean.

Politikari, agintari eta erakunde ofizialak, bete ezazu herritarren erabakia behar bezala betikoz!

Aitor Iturriaga Bakoña eta Amaia Balda Elkarte

tira biraka: alex ugalde

Urte berria, bizimodu berria, beraz, su eman behar diet museo, monumentu eta eskola guztiei; eta sekula baino gehiago erre eta edan behar dut.



■ atrebentzia ezpada

■ bai, esan!

Zer eskatu diozu urte berriari?



Jose Blazquez

Aurreko urtea bezalakoa izan dadin eskatu diot. Okerragoa ez bada konformatuko nintzateke. Guztiok ondo eramatea eta bakea ere eskatuko nioke.



Arantxa Gabilondo

Bereziki osasuna eskatu diot. Hezur arazoak izan ditut eta osasunean zorte handiagoa izatea gustatuko litzaidake. Horri emango nioke lehentasuna.



Txomin Arraiago

Ez nioke ezer eskatuko. Osasunean orain arte moduan jarraitzen badut nahikoa da. Minbizia izan nuen eta orain ondo izan arren beti geratzen da ardura.

Gertaeraren bat salatu edo txalotzeko, deitu 943 76 03 97ra. Identifikatu gabeko mezurik ez da onartuko.

ERDIALDEKO KALEAK ZIKIN-ZIKIN EGINDA ERREGE EGUNEAN

Aste honetan Maria Pilar Agirrek deitu digu salatzeke Errege bezperako juergaren biharamunean, Errege egunean, Bergarako erdialdeko kaleak oso zikin zeudela.

Maria Pilarrek dio ez dakiela Errege egunean kalegarbitzaileak zikinak garbitzen ibili ziren ala ez, ibiliko zirela uste du, baina arratsaldean kalea zikin samar zegoela dio bergarar honek. Astelehenean ere kristal ugari ikusi ei zuen kalean: botelak, edalontziak... denak puskatuta, zauriak egiteko ezin aproposago. Maria Pilarren ustez horrelako egunetan, Pazkuetan egiten den bezala, ardura gehiago jarri beharko litzateke kalea garbitzeko.



Juan Iturbe

Osasuna eta bakea urte askotarako izatea. Horrekin konformatuko nintzateke. Joan zen urtea bezalakoa bada gustora egongo nintzateke.



Mertxe Irazabalbeitia

Lehentasuna osasunari ematen diot. Edozer gauza baino garrantzitsuagoa da. Gaur egungo egoera kontutan hartuz bakea ere eskatuko nioke.



Antonia Reyes

Beste edozer baino gehiago osasuna. Ez diot beste gauza berezirik eskatu. Diru kontutan ez naiz kexatzen eta bestelakoetan ere ez. Osasuna da garrantzitsuen.

■ ikuspuntua: antonio zabala

Gabonetako burbuilak



onak eta solidarioak edukitzera ere bultzatzen gaituzte. Telemaratoiak, tonbolak eta abar antolatzen dira eta jendea sasoi honetan, bere aurpegi onena azaltzen ahalegintzen da urte 365 egunez osatuta egon arren.

Komunikabideek joandako urtearen balantzeak egiten dituzte eta datorrenerako egitasmo ugari sortzen dute eta neurri berean pertsona bakoitzak bere balantzea egiten du. Honela, urte berriari baikortasun gehiagorekin ekiten diogu.

Horrela dira Gabonak, eta txanpainare-


kin antz handia dute. Denbora gutxian gauza mordoak egiten denez biharamun piska bat uzten dute. Txanpainaren burbuilak alaitasuna ekartzen dute eta asko hartzen baduzu biharamuna sortarazten badizu ere, hurrengo egunean honen efektua ahaztuta duzu. Ba Gabonekin eta urte berriaren hasierarekin gauza bera gertatzen zaigu: sortutako baikortasun eta asmo onak iragankorrak dira oso eta etxeetan jarritako Gabon apaingarriekin batera desagertzen zaizkigu. Normala deitzen dugun bizimodua berriz inposatzen da eta Gabon burbuilak alde egiten dute, baina ez gara larritu behar (ala bai?), bakarrik datorren abendura arte. ■

Erregeak pasatu dira eta beraiekin Gabonetako egun bereziak eta piskat historikoak. Hamabost egunetan ia-ia denetik egiten dugu: loteriarekin aberasteko irrika sortarazten zaigu; 31n eta 5ean farra derrigorrezkoa; merkatuan saltzen den guztia erosi nahi dugula ematen du; eta jan eta edan ere dexente egiten dugu, diru asko gastatuz.

Baina hau ez da dena, Gabonetako egitarauak denboraldi honetan sentimendu

■ asteko menua: **zabala jatetxea**

Arrain zartzuela



RAFAEL ZABALA SUINAGA
Zabala Jatetxeko sukaldaria

OSAGAIAK (4 laguntzat)

- 12 muskuilu
- 24 txirla
- 400 gramo zapo, xerra finetan moztua
- 300 gramo kalamar, arotan moztua
- 200 gramo zigala
- 200 gramo ganba
- Oliba olio
- Tipula txikitua
- Berakatz ale txikitu batzuk
- Gatza
- Perrexil apur bat ondo txikitua
- 250 gramo tomate zatitu
- 2 goilarakada txiki limoi ur
- 2 gramo piperbeltz
- 6 goilarakada Jereza ardo
- Brandy goilarakada bat

PRESTAKETA

- Muskuiluak eta txirlak lapikoan su motelean ipini, zabaldu arte; azala kendu eta mamia gorde.
- Sartagin batean, 15 centilitro oliotan, tipula, berakatzak, perrexila eta tomate zatiak potxatzen ipini eta gorritzen laga barik sutatik kendu.
- Zapo eta kalamarrak gaztu eta olio eta limoi ur apur batekin ipini bustinezko ontzi batean, estalita eta su motelean.
- 10 minutuz sutan eduki ondoren, zapo eta kalamarrak egosita daudenean, muskuiluak, txirlak, zigalak, ganbak eta olio frijitua gehitu; gatz apur bat bota, ontzia estali eta 15-20 minututan su motelean egosten laga.
- Sutatik atera aurretik, piperbeltza, Jereza eta brandya gehitu eta sutatik berehala kendu.

■ adituen esanetan

Etxeko animalien araudi berria

ROMAN LAZPIUR, *albaitaria*

Datozen hilabeteetan etxeko animalien eta kalean aske dabilzan animalien inguruko araudi berria jarriko da indarrean gure herrian. Araudia dagoeneko martxan dago inguruko hainbat herritan eta oraingoz esperientzia positiboa izan da. Araudiak etxean izaten ditugun animalia zein kalean aske ibiltzen direnengan izango du eragina.

Alde batetik araudiak txakurrek etxeetan ateratzen dituzten zaraten arazoa konpondu nahi du. Normalean zaratarena antsietate arazoa izaten da eta bi soluzio nagusi ditu: batetik lepoko elektriko bat jartzea animaliarri edo txakurra tratamendu medikoan jartzea.

Bestetik, kalean egoten diren txakur-kaken arazoari aurre egin nahi zaio. Kakak batzea oso garrantzitsua da, horrela kontajioak (pertsonekiko zein animaliekiko) saihesten direlako, kaka horiek gaisotasunen transmisoreak izan baitaitezke.

Azkenik, animaliak aske eraman beharrean, lotuta erabiltzea gomendatzen du araudiak, kotxeek animaliarrik harrapa ez dezaten eta txakurren arteko burrukak eta herritarrei koska egiteko arriskua baztertzeko.

Puntuok errespetatzea inportantea da herritarren artean liskarrik izan ez dadin. ■

■ bergarako gordailuti

PILOTA TRINKETE MODURA

Imanol Sorondo

BERRIGARAKO sail honetan azaldu zen pilotatoki berri bat egiten ari zirela

XVIII. mendeko erdialdera Irizarren lurretako mugetan eta, "berria" zioten, bazirudiela beste zaharragoko bat ere aitortzen zuela.

Pilotatoki bati buruz gaur ipini behar duguna orain hirurehun urteko kontua da, 1709koa hain zuzen, eta trinketeetan modura jokatzekeo lur-azalean egin zitekeen lan bati buruzkoa.

Moyua eta Ubillatar Fernando Jose alkate jaunaren proposamena izan zen: Kontzejuko enparantzan jokatu ohi zuela jendeak pilotan eta, trinketearen modura jokatzekeo, harrizko harlosa gogorra behar zela marraraino

Moyua eta Ubillatar Fernando Jose alkate jaunaren proposamena izan zen: alegia, Kontzejuko enparantzan jokatu ohi zuela jendeak pilotan eta, trinketearen modura jokatzekeo, harrizko harlosa gogorra behar zela marraraino. Gainera, bertako dibertsio bakarra izanik, onartzeko eta egiteko eskatu zien zinegotzietei. Handik urte batera, 1709an, baiezkoa eman zuten hauek, Unzetatar Franziskoren alkatetzara garaian. Nondik norakoa ote zen Bergarakoa, eta oraingoa modukoak ote ziren orduko trinketeak, ezin esan; zalantzak gelditzen zaizkigu, baina ez da gehiago argitzen, ez zaigu zehaztasun gehiagorik ematen. Dena dela, euskal jokoaren datu interesgarria eta zaharra da gure herrikoa. ■



Miss Araba lehiaketan

Jone Molina 21 urteko osintxuarrak **Miss Araba lehiaketan** parte hartu zuen abenduaren 23an Gasteizen. Jone Gasteizko Txairoki modelo agentzian ari da eta beste 12 neskekin batera izan zen lehian. Jonek 1,73 m.ko altuera, begi marroiak eta 83-57-87ko neurriak dauzka. Ciudad de Vitoria hotelean izandako Miss Araba lehiaketan erro-pa bakeroarekin, bainujantziarekin eta gaueko soinekoarekin desfilatu behar izan zuen. Saririk jaso ez arren, esperientzia guztiz interesgarria gertatu zitzaion. Jonek estetizista ikasketak egin ditu eta etorkizunean modelo ikasketekin jarraitzeko asmoa dauka.



Fiat eta Alfa Romeoren saltzaile berria

Markiegi autoak -ek Fiat eta Alfa Romeo kotxeen erakusketa aretoa inauguratu zuen joan zen abenduaren 22an.

Pabiloi berria Markiegi autoak garajearen ondoan dago, LAT-ITVaren parean hain zuzen. Jende ugari bildu zen inaugurazio ekitaldian eta bertaratuek, pintxoak dastatzen zituzten bitartean, Fiat eta Alfa Romeoren azken modeloak ezagutzeko aukera izan zuten. Argazkian **Melchor eta Jesus Markiegi** (eskuman), **Pilar Garcia**, **Xabier Larrañaga eta Ricardo Mosteiro** langileekin batera.



Kanela saritua


Kanela dekorazio dendak bigarren saria eskuratu du **Gipuzkoako Merkataritza Ganbarak antolatutako eskaparate lehiaketan**. Guztira **200 partaide** inguru izan dira aurtengo edizioan eta lau sail bereiztu dira: elikadura dendak, jantzi dendak, etxeko ekipamendua eta jaiotzak. Kanelak etxeko ekipamendua izenburuko sailean eskuratu zuen bigarren saria, Tolosako Bronte optika-ortopediaren atzetik. **Usue Azkaratek** Merkataritza Ganbararen **plaka oroigarria** jaso zuen sari gisa Donostian egindako sari banaketan. Bigarren aldia da Ganbarak Kanela saritzen duela, iazko edizioan lehen saria jaso baitzuen.

B e r g a r a k o

OSASUN GIDA

- **ALBAITARIAK: ARATZ KLINIKA (LAZPIUR Roman).** Zurradero 6, behe. 943 76 70 67, mobila: 907 48 71 19 • **ETXEBERRIA Julio (Granjako animaliak).** 943 76 81 32, mobila: 908 77 17 32 • **ETXEBERRIA Julio (Deba Garaiko albaiari ofiziala).** 943 76 43 29, mobila: 908 77 17 32 • **IRASTORZA BENGEOA Sabin (Granjako animaliak).** Iribar baserria, ANTZUOLA. 943 76 63 46 • **NOGUEIRA Humberto (BALDANA klinika).** Koldo Eleizalde 28. 943 76 27 97, mobila: 908 87 68 47 ■ **ANALISI KLINIKOAK: LABORRA Isabel.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **BARNE MEDIKUNTZA: IRIGOYEN Victor.** Oxirondo 4, 1-B. 943 76 32 06 ■ **DENTISTAK: ASTIAZARAN SOLDAKOR BAL.** Iparragirre 1, behe. 943 76 27 95 • **BERGARA HAGIN KLINIKA.** Bidekurutzeta 6, 2. 943 76 05 77 • **GOROSABEL J. Alberto.** Fraiskozuri 5A, 1-D. 943 76 58 32
- **GIPUZKOAKO ESPEZIALITATE ODONTOLOGIKOETARAKO ZENTRUA, E. M. S. Arrieta 3, 2-B. 943 76 38 54 • IRIARTE Idoia.** Artekale 1, 1-C. 943 76 01 65 • **IRIBAR Juan Mari.** Boni Laskurain 4, behe. 943 76 56 57 ■ **DERMATOLOGOA: GARCIAINDIA Cristina.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **ERREHABILITAZIO FISIKOAK: DE MUNAIN Francisco J.** Fraiskozuri 8, 1A. 943 76 71 74 ■ **FISIOTERAPEUTAK: ARZAK Miren.** (Reeducacion Postural Global) Artekalea 1, 1-H. 943 76 47 47
- **GINEKOLOGOA: SERRANO DOKTOREA.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 ■ **MASAILARIAK: AGIRREZABAL Jose Jabier.** Boni Laskurain 1, 2-A. 943 76 15 57
- **AZPEITIA Irupe.** Agorrosingo igerilekuak. 943 76 20 51 • **CASANELLAS Jabier.** Boni Laskurain 5, 2-E. 943 76 03 78 • **ETXEBERRIA Ana.** Errekalde 6, behe. ANTZUOLA. 943 76 60 13 • **PAYROS Aitziber.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62 ■ **MEDIKUNTZA ESTETIKOA: BENITO Isabel.** Bidekurutzeta 46, behe. 943 76 52 62
- **MEDIKUNTZA OROKORRA: OXIRONDO KONTSULTATEGIA.** Boni Laskurain 2, behe. 943 76 20 50 ■ **OTORRINOLARINGOLOGIA: IGARTUA Julian.** Berriena 35, 1-ekerra. 943 76 70 91 ■ **PODOLOGOAK: ALTUBE Edurne.** Simon Arrieta 2. 943 76 07 84 • **AZPIAZU Arantzazu.** Herri Lagunak z/g. 943 76 47 47
- **PSIKIATRA: GALLASTEGI Pablo.** San Martin Plaza 2, 1-ekerra. 943 76 26 64
- **PSIKOLOGOAK: FERNANDEZ J.R.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39 • **PSIKOPEDAGOGIA ZENTRUA (Logopedia-foniatria, psikologia, psikomotrizitatea).** 943 76 14 80 • **URKAREGI Pakita (Psikologo klinikoa).** 943 76 53 13 • **ZUBILLAGA ZABALA Marisa (Psikologo klinikoa).** 943 76 30 76 ■ **REUMATOLOGIA: MORAGUES Carmen.** Ramon M. Lili 2. 943 76 59 39

Urte Berri egunean 66 urte egin zituen eta *jubilazio politikoaren* atarian dago Imanol Bolinaga. 1983tik 87ra bitartean Bergarako alkatea izan zen, ondoren udal oposizioan lan egitea tokatu zitzaion eta garai hartan Turismo sailburuordea ere izan genuen. 1991tik Madrilgo Senatuan ari da lanean. Otsailean Senatuko eserlekua laga aurretik berarekin hizketan izan gara.



Imanol Bolinaga, EAJko senatorea

“Lizarrako Akordioa ahal den leku guztietara eramán behar da”

Zela ikusten duzu gaur egungo egoera politiko? Lizarrako Akordioarekin martxan jarritako bake prozesua bide onetik doa?

E. Sasoi onean gaude Lizarrako Akordioarekin pausu handiak eman direlako. Gauzak hobera joango direla uste dut. Ikusi egin behar euskaldunok, mota batekoak zein bestekoak, gauza garen gure artean horrelako jokabide goxo-samar bat aurrera eramateko, batak bestearekin hitzeginez eta egia beti aurretik izanaz. Beti izan dut gure herriarekiko izugarritzko konfiantza eta itzaropentsu nago bizi dugun egoerarekin. Bidean hamaika kontraesan topatuko ditugu oraindik, baina guztiak gainditzeko gai izango garelakoan nago, herri hau oso dinamiko da eta.

G. Lizarrako Akordioak eta urriko hauteskundeek bi blokeren bereizketa ekarri dute.

E. Gure etsirik handiena gure arteko zatiketa izan da eta Lizarraren inguruan ados jartzeak sekulako garrantzia dauka. Lizarrako Akordioak gure etorkizunerako garrantzi izugarria dauka eta hori ikusita Madrilén urduri jarri dira, ezertarako balioko ez balu trankil asko izango ziren. Aldiz, PP eta PSOE oso urduri daude, egunero ikusten da eta zezenen antzera dabilta, ezker-eskuinetara adarka. Euskaldun izaeraren aurka daude eta noizbait elkartzen badira gu izorratzeko izango da. Nahi edo ez nahi gu desberdinak gara eta gauza ezberdinek tratamendu berezia behar dute. Euren buruan ez da hori sartzen. Espainiako folklore moduan ondo egongo ginatete; horregatik esaten dute manifestazioetan “ETA no, vascos sí” baina hezitutako euskaldunak komeni zaizkie. Guk geure nortasun propioarekin izan nahi dugu euskaldun.

G. 1996ko apirilean, Berrigarak egindako elkarrizketa batean zera adierazten zenuen: “Gure helburua EHren burujabetasuna da”. Zein da hori gauzatzeko modua?

E. Alderdi politikoek aurrera eramán beharko dute hori, baina ez alderdi politikoek bakarrik, abertzale guztiek baizik. Alderdi politikoak herria formatzen joan behar dira herri horrek bihar edo etzi autodeterminazioa erabakitzeko. Hori etorriko da. Konstituzioa sartzén digute ahotik gaur egun, Bibliaren antzera aldaezina balitz moduan. Gure herri barruan, lurraldeari begirata, hiru zatiketa nahiko argi daude gaur. Nafarroak adibidez bere arazoak ditu. Zer egin behar dugu, nafarrak lepotik heldu eta gurekin barrura sartu? Beraiek erabaki beharko dute zer nahi duten. Iparraldekoek berdin. Eta gu, geure artean, antzera. Autodetermina-

zioa definitu egin beharko genuke detaile guztiekin. Hitz potoloa da baina hitz potolo hori sakondu eta findu egin behar da. Dena den, herri baten eskubideetako bat autodeterminazioa da,

Konstituzioa sartzen digute ahotik, Bibliaren antzera aldaezina balitz moduan. Baina autodeterminazioa gure herriaren eskubide sakratua da"

eskubide sakratua gainera, eta Espainian eskubide hori ukatu egiten dute.

G. Zer deritzozu EAJk eta EAK osatutako Euskal Gobernu berriari?

E. Konfiantza osoa daukat gobernu berriarekin; ezagutzen ditut gobernuan lanean arituko direnak eta oso ondo gertatutako jendea da. Juan Jose Ibarretxe ere Lehendakari ona izango delakoa nago, gizon apala, azkarra eta lanerako sekulako kapazitatea daukalako. Ez daukate lan errezik, herri hau oso konplexua baita eta tira-bira asko izaten direlako. Badaukate zer egin eta non egin. Lehenbiziko helburua bake prozesua aurrera eramatea izango da eta ziur naiz ondo jokatuko dutela.

G. Nobedaderik nagusienetako bat EH parlamentuan, gobernu babesten izango dela da. Zure ustez, zelako papera jokatuko du EHk?

E. Konfiantza osoa daukat euren gan. EH bide horretan sartu bada, laguntzeko prest daudela esan nahi du horrek. Kontuan izan behar da bloke horren azpian, goian edo ez dakit non

Lizarrako Akordioa dagoela eta horrek nolabait markatuko du gobernuaren martxa. Gobernu arriskuan jartzen bada, Lizarrako Akordioa ere kolokan jar dezake. Guztiok kontu handiz jokatu beharko dugu eta alderdien arteko kolaborazioa ezinbestekoa izango da.

Madriren fronte abertzalea osatu dela diote baina ez digute beste aukerarik ematen. Ia deabrukeriatzat jotzen dute Lizarrako Akordioa. Ez dute esango hitzarmenaren halako artikulua ez dela demokratikoa. Horrela ezin da jokatu. Lizarrako hitzarmenaren denontzako lekua dago, Ezker Batua ere hor dago. Edozein alderdi etor daiteke bertara erreflesionatzera.

G. Ibarretxeren kargu hartzean, Gernikan, EHkoak egon ez izana kritikatu izan dute hainbat sektorek.

E. Nik ere sentitu nuen EHkoak han ez ikustea (ni bertan izan nintzen). Nik nahiago nuen EHkoak Gernikan izatea. Baina, ez etortzeagatik ez nituzke kritikatu. Etorri izan balira ere izango zizuten beste batzuen kritikak. EHk bere


Mahai Nazionalekoak Mespexeratzea astakeria izan da; astakeriak ere jantzi daitezke juridikoki. Bada ordua Mahai Nazionalekoak etxeratzeko"

iritziarekin jokatu behar du eta ziur naiz euren jendearen aurrean ere esplikatuko beharko dituztela bere jokaerak, alderdi guztietan gertatzen den moduan. Dena den, ni ez naiz ino EHren jokaera kritikatzeko. Eta argi daukat

Gernikan egon izan balira beste noble baitetik ere kritikak jasoko zituztela.

G. Gobernu berriak eraginik izan dezake gainontzeko instituzioetan. Bergarako Udaletxean adibidez?

E. Nik uste dut eragina izan behar lukeela. Azken batean, Lizarrako hitzarmenaren izpiritua toki guztietara eramane beharko genuke, noski Udaletxera ere bai. Hori ez da baztertuta egon behar den hitzarmen bat, hitzarmen hori kaleratu egin behar da. Ni sekula ez zait gustatu zubi guztiak haustea, badaezpada ere horrelako pasarella txiki bat gordetzea ez dator gaitziki, jakina baita apurtzea oso erreza da. Gure herri maite honek ez du mereziz gure artean borrokan eta haserre ibiltzerik. Zaila da gai guztietan ados izatea baina zentzuzko gauzekin askotan arrazoi barik haserretzen gara. Historikoki ikasi egin behar da, egunero gainera. Politikan haserreak sarri izaten dira nahiz eta gauza askotan ados egon. Lizarrako Akordioa ahal den leku guztietara eramane behar da; ez gara anaiak



Imanol Bolinaga martitzenean egin genion elkarrizketaren hiru momentutan. Bergarako alkate ohiak otsailaren erdialdera lagako du Senatuan duen eserlekua.

**A
R
R
A
N
O**

Taberna

Kruz Gallastegi BERGARA

DENA

100etik

ZURE OPARIENTZAKO

Simon Arrieta 3

gizon & emakume

Barrenkalea 35 BERGARA

izan behar Lizarran bakarrik, Bergaran zergatik ez?

G. Presoen hurbiltzea medio adostasun puntu batzuk lortzen hasi dira...

E. Ez gara inoiz presoen aurka egon, baina politikoki bi jokaera ezberdin izanik tira-bira asko egon izan dira. Dena den, preso batek munduan diren giza-eskubide guztiak izan behar ditu. Beste gauza bat da nahiko arrazoi izatea espetxeratzeko edo ez. Baina espetxean dagoen bitartean bere etxetik ahalik eta gertuen egoteko eskubidea dauka, ez Kanarrietan edo Almerian. Europako Parlamentuak ere hori esaten du eta eskubide hori aldarrikatzea lojiko da.

G. Jose Mari Etxaniz askatzeko plataforman ere ari zara. Zein da orain arte egindako lanaren balorazioa?

E. Jende konprometitua dago, lanean ondo diharduena baina egia da gauza handirik ezin daitekeela lortu. Ez dago gure eskuetan Etxaniz askatzea, baina plataformak ahal duena egiten du eta oso pozik nago hor egoteagatik. Zerbait lortzeko balio ote duen zalan-zak daukat. Azken finean, ministerioari bost axola plataformak zer egiten duen. Ondo dago herrian kontzientzia berpizteko, jendea konprometitzeko eta lan on bat egiteko, baina horrelako plataformek indar gutxi daukate. Beharbada beste modu batean jokatu behar du, helburua lortzeko beste bide batzuk topatu beharko genituzke.

G. Zela ikusten dituzu datorren ekaineko udal hauteskundeak?

E. Aurreko bozketari kaso egiten badiogu, horrek emaitza batzuk ematen dizkizu. baina gauzak asko aldatzen dira hilabete batetik bestera. EAJko kide bezala,

Euskal gobernua arriskuan jartzen bada, horrek Lizarrako Akordioa ere kolokan jar dezake. Alderdiek kontu handiz jokatu behar dute"



Udaletxeko gehiengoa gure taldekoa izatea nahi nuke. Alderdi batekoa edo bestekoa izan, udaletxean jende zintzoa, ona, garbia eta langilea behar da. Gobernu taldea osatu beharko da eta alkatea EH eta EAJren artean izango da ziurrenik.

G. Posible ikusten duzu bien arteko akordioak?

E. Bai, gainera akordio horretara iritsiko balira ni poztu egingo nintzateke. Posible ikusten dut. Eta orain ez badator, hurrengo batean etorriko da hori. Guztion onerako izango da gainera. Hori ez baldin badator, gu ez gara sekula libre izango. Zatatuta eta gure artean harrika gabiltzan bitartean, aurkakoen gozamenarako izango da; Madrilen dako barregarriak izango gara eta hori da nahi dutena. Uste baino diferentzia gutxiago dago hemengo alderdien artean eta akordioak sortzea primerakoa litzateke; bata eta bestearen artean zubiak eraiki behar dira. Horren beldurra dute PPK eta PSOEek Madrilen.

G. Bestalde, zer deritoxozu Vera eta

Barrionuevori indultoa emateari?

E. Nik ondo baloratuko nuke guztiakin jokabide bera izango balitz. Beste batzuk kaleratzen ez dituzten bitartean horiek ere barruan egon beharko lukete. Eta horrek kanporatu badituzte, besteei ere irtenbide bat eman behar zaie. Argi dago guztiak ez zaiela justizia modu berean aplikatzen.

G. Herri Batasunako Mahai Nazionalak esan du ez duela espetxeko gradu jokorik onartuko eta hirugarren graduari uko egingo diola...

E. Normala. Euri ere indultoa eman behar zaie. Garbi esan dut askotan Mahai Nazionalakoak espetxeratzeari astakeria bat izan zela. Astakeriak ere juridikoki jantzi daitezke. Ezin daiteke bakerako bideo bat erakustegatik kartzelan sartu. Igual ez da nire gustokoa izango baina beste batzuren bideoak eta astakeriak ikusi eta entzun behar izaten ditugu. Bada aldea, bideo bat erakutsi eta pertsona bat bahitzearen artean.

Jose Luis Elkoro eta biok aurkari politikoak izan arren, uste dut herri hau mugitu egin beharko litzatekeela bere askatzearen alde, Bergarako seme izateaz gain, gure alkatea izan delako. Bada Mahai Nazionalakoak etxeratzeko ordua. **B**

MAHER
Biltegiak L.E.
Oihal etxea
Bidekurutzeta 29
943 76 22 90 - 943 76 26 75

ZUBIAURRE
aroztegia

- Aulki eta mahaien erakusketa eta salmenta.
- Sarrerarako eta barrurako atea.
- Neurria egindako horma-armairuak.
- Tarima eta parketak.
- Zurezko leihoak.
- Era guztietako artz-lanak.

Zubiaurre 2, Bergara.
Tf. 943 76 15 14 / 943 76 35 73



Gaspar
JATETXEA, TXOKOLATEGIA,
SELF-SERVICE-a

Barrenkalea 31 Tf. 943 76 20 02 BERGARA



Labegaraietako futbito txapelketa

partiduak

Zapatuan barruan

09:00: Buya-La Juve
 10:00: Mo(ko)lotov-Patatus
 11:00: Jakina Patxaran Team-K. Piperrak
 16:00: Matxakategi-Ari Ari
 17:00: Iganekoak-Pinturas Bergara
 18:00: Ion Autoak-Agiñaspi
 19:00: Ortz-Bildurbarek Opel/Lam
 20:00: Azpeitxi Jatetxea-Mongatxurak

Patatus
 Jakina PT
 Mo(ko)lotov
 Iganekoak
 Agiñaspi
 P. Bergara
 Mongatx.
 Ortz

Domekan barruan

09:00: Amozkibar-Amilotx
 10:00: Ari Ari-HHH
 16:00: Bar Canalejas-Pagiomendi
 17:00: Mongatxurak-Jauja OH Zerezos
 18:00: Moskis-Matxakategi
 19:00: Ufala-Agirrebeña Jatetxea
 20:00: Urrutxurtu-Irubide Jatetxea

Ari Ari
 Amilotx
 Mongatx.
 Canalejas
 Ufala
 Urrutxurtu
 Agirrebeña

Domekan kanpoan

09:30: Txipiron-Bayer
 10:30: Artusamak-Usoa
 11:30: A Ze Flaxa-Azpeitxi Jatetxea
 12:30: Errotagain-Shaktale
 16:00: Arbe Kirolak-Ezinleike
 17:00: Xurruapak-Uve Bikoitza
 18:00: Eri Sirimiri-Tom Cat Argandolas
 19:00: Guadalest-FAC

Artusamak
 Txipiron
 Errotagain
 A Ze Flaxa
 Xurruapak
 Tom Cat
 FAC
 Eri Sirimiri

argi!

Txapelketa lau mailatan banatuko da

Hemendik aurrera taldeak lau mailatan arituko dira. Lehen itzularen ondoren, lehen mailakoek izan ezik, taldeek mailakatze berria dute. Banaketa honek txapelketa amaierarte iraungo du.

jokoz kanpo



JOSE GOMEZ
 "PESCA"
 Bar Canalejas

G. Zenbat urte txapelketan?

E. Hasieran Eusebio II izenarekin jokatzeko gogor hasi nahi nuen. Une honetan taldean garai hartako bi jokalaririk onenak gara. Gainontzeko guztiak berriak dira. Ni neu txapelketa hasi zenetik nago. 87an hasi zela uste dut.

G. Orain antolatzaile lanetan zabilta.

E. Normalean ez dut jokatzeko. Jende faltan gaudenean bakarrik. Nere taldea eta txapelketa antolatzeaz arduratzen naiz.

G. Denbora handia kentzen du horrek?
 E. Bai. Partiduak antolatzen eta horren jarraipena egitea, lan handia da. Urte asko daramazkit antolatzaile lanetan eta dagoeneko ohituta nago.

G. Txapelketa hoberuntz egin du?

E. Ez dakit. Hori lortzen saiatzen gara. Gero eta talde gehiagok hartzen du parte txapelketan eta hori seinale ona dela uste dut. Futbitoari dagozkion arauak ezartzen ari gara poliki poliki. Talde batzuk, horren aldekoak dira areto futbolari bete bete jokatu nahi dutelako. Beste batzuk aldiz ez daude horrekin ados, arau gutxiagorekin jokatu nahi dute. Hori dela eta, era guztietako kexak entzun ditugu arauen inguruan. Guztion nahia egitea zaila izaten da.

gora eta behera



Shaktale eta La Juve

Bi taldeek gogor ekin diote bigarren itzulari, estraineko partiduak gol piloa sartuz. Lehen mailako faroltxo gorria Shaktalek, A Ze Flaxa Etxagi liderrak eta 0 irabazi zion. Laugarren mailan, La Juvek 10 gol sartu zituen SLP taldeari.



A Ze Flaxa Etxagi

Futbola zientzia zehatza ez dela esan da eta horrela frogatu zen azken jardunaldian. Lehen mailako liderrak 6 eta 0 galdutuzko zuzeneko sailkatuaren kontrako horrelako ezustekoak pizgarriak dira.

emaitzak

Amilotx-Buya	34
HHH-Jakina Patxaran Team	03
Agirrebeña Jatetxea-Moskis	24
Patatus-Amozkibar	27
Pagomendi-Errotagain	13
Jauja OH Zerezos-Ortz	03
FAC-Txipiron	14
Ezinleike-Guadalest	33
Uve Bikoitza-Arbe Kirolak	04
Usoa-Sirimiri Eri	16
Tom Cat Argandolas-Xurruapak	23
Bayer-Artusamak	23
Bildurbarek Opel/Lam-Bar Canalejas	04
Shaktale-A Ze Flaxa Etxagi	04
Pinturas Bergara-Mo(ko)lotov	14
Agiñaspi-Iganekoak	34
Komando Piperrak-Etengabe	104
La Juve-SLP	43
Irubide Jatetxea-Ufala	43

sailkapenak

Lehen maila

	P	J
1. A Ze Flaxa Etxagi	20	10
2. Errotagain	20	10
3. Pagomendi	19	9
4. Azpeitxi Jatetxea	16	9
5. Ortz	14	10
6. Bildurbarek Opel/Lam	12	10
7. Bar Canalejas	10	10
8. Jauja OH Zerezos	9	10
9. Mongatxurak	8	8
10. Shaktale	7	10

2. maila

	P	J
1. Sirimiri Eri	3	1
2. Ezinleike	3	1
3. Artusamak	3	1
4. Arbe Kirolak	3	1
5. Tom Cat Argandolas	1	1
6. Xurruapak	1	1
7. Txipiron	1	1
8. FAC	1	1
9. Bayer	0	1
10. Guadalest	0	1
11. Uve Bikoitza	0	1
12. Usoa	0	1

3. maila

	P	J
1. Moskis	3	1
2. Jakina Patxaran Team	3	1
3. Etengabe	3	1
4. Irubide Jatetxea	3	1
5. Ufala	0	1
6. Komando Piperrak	0	1
7. HHH	0	1
8. Agirrebeña Jatetxea	0	1
9. Matxakategi	0	0
10. Urrutxurtu	0	0
11. Ari Ari	0	0

4. maila

	P
1. La Juve	3
2. Amozkibar	3
3. Iganekoak	3
4. Mo(ko)lotov	3
5. Buya	3
6. Amilotx	0
7. Agiñaspi	0
8. Pinturas Bergara	0
9. Patatus	0
10. SLP	0
11. Ion Autoak	0

kronika

Reala jubenil mailako Gabonetako txapelkun beste behin ere

Reala indartsu azaldu zen beste behin Gabonetan jokatuako jubenilen futbol txapelketan. Lehendabiziko partiduan 5-4 irabazi zion UDARI eta Urte Zahar egunean Bergararen kontrako finalean 2-6 irabazi zuen. Zelaiaren mutilek, bestalde, aurreko jardunaldian Aloñaren kontrako partiduan garaipena lortu zuten 2 eta 0 nagusitu ondoren.

Ikusle ugari hurbildu zen Realaren eta Bergararen arteko neurketara. Partidu osoan zehar Reala nagusitu zen. Lehendabiziko zatian Realekoek hiru gol egin zituzten eta bigarrenen beste hiru, baina Bergarakoek bertan bildutako ikusleei bi gol eskaintzeko parada izan



Begarako eta Realeko jokalariek partidu amaieran.

zuten. Realaren markagailuan 5 gol zeudenean, Larrañagak lehendabizikoa sartu zuen eta ondoren Aranak bigarrena. Zaleek garaipena bailitzan ospatu zituen bi golak nahiz eta Realak seigarren batez norgehiagokari amaiera eman. Partidu bukaeran banatu ziren sa-

riei dagokienez, Martin Zaitegik jokalaria onenaren saria, Bergarak bigarren saria eta Realak lehen saria eskuratu zituzten. Duela bi urte izan ezik, Gabonetako txapelketa antolatu denetik Realekoak izan dira txapelkun. Duela bi urte zarautzarrak nagusitu ziren. ■

ROBERTO LIMERES / Tenislaria

"Bergaran tenis-pistak falta dira"

Gernika ingurukoa izan arren Bergaran bizi da. Duela bi urte, Jorge Aranesek zuzentzen duen tenis ikastaroan hasi zen eta azaro eta abenduan Deba Garaiko Mankomunitateak antolatutako tenis txapelketa jokatu ibili zen.

G. Nola joan da txapelketa?
E. Lehendabiziko kanporaketa 6-1, 6-1 irabazi nuen eta bigarrena berriz 7-5, 6-3 galdu. Aurrerari gogorra izan nuen orduan. Aretxabaletako tenis irakasle bat alegia. Bigarren txanda irakasleek edo denbora luzeagoz aritutakoek gainditu zuten. Motta izan zen eta nahiko azkar kaleratu ninduten. Gustora ibili

nintzenez, Arrasaten antolatutako beste txapelketa batean eman nuen izena.

G. Bergara mailan ez da jarraitzaile asko dituen kirola.

E. Gero eta jende gehiago ari da tenisean jokatu dena da Bergaran ez dagoela non aritu. Jorgerekin hogeitau lagun gaude eta jende asko kanpoan gelditu da. Bestalde, ez dago pistarik eta jendea Oñatira joaten da. Bertan bi pista daude. Ikastaroren batean ez bazabiltza jarraipena egiteko aukera handirik ez dago eta ikastaroan ibilita ere ordutegi oso bereziak eta denbora mugatua daukagu. Iluntze-

an entrenatzen gara.

G. Non jokatu zenituzten partiduak?

E. Labegarrietako kiroldegiko kanpoko pistan. Ez da tokirik egokiena baina...

G. Tenislari bat.

E. Estefan Edberg



KARTELDEGIA

FUTBOLA

Bergara-Burumendi

Lehen mailako jubenilak

Zapatua. 15:45. Ipintza

Bergara-Ilintxa

Bigarren mailako kadeteak

Zapatua. 17:30. Ipintza

Bergara-Mutriku

Lehen mailako kadeteak

Domeka. 10:00. Ipintza

Bergara-Reala

Infantil maila

Domeka. 11:30. Ipintza

PILOTA

Bergara-Añorga

Jubenil maila

Final laurdenak

Gaur, eguakitzan. 19:30

PROFESIONALAK

• Nagore eta Beloki

Unanue eta Errasti

• Agirre eta Imaz

Tirapu eta Taberna

• Mingez eta Rai

Barberito VI eta Zearra

(Euskadiko Txap. finalerdiak)

Zapatua. 16:45. Pilotalekua

ARETO FUTBOLA

Bergara Lagunak- Ordizia

Neskak

Domeka. 12:30. Labegarrieta

Eskola kirola: 14 urtetik beherakoek badute aukera

500 gaztetxo baino gehiago ari dira denboraldi honetan

Duela 12-13 urte, Gipuzkoako Diputazioak gaztetxoiei zuzenduriko Eskola kirola programa berezia jarri zuen martxan. Orduko kirol legea aldatu eta gaztetxoiei gutxienez hiru kirol egiteko aukera zabaltzea erabaki zen. Helburu nagusien artean bat, kirol ezberdinak ezagutzeko aukera ematea eta bigarren mailan zeuden kirolak sustatzea izan zen.

Programa horretan, hainbat udal murgildu ziren. Bergarako Udalaren kasuan, Eskola kirola antolatzeaz Begoña Payas arduratzen da. Urrietik maiatzera bitartean, Bergarako gaztetxoak Eskola kirolaren baitan dauden kiroletan aritzen dira. Bergarako kirol eta guraso elkarteak, ikastetxeetako zuzendariak, eta udaltxeko kirol teknikarien artean eraturiko kontseiluak, urtean zehar zein kirol landuko diren erabakitzen du. "Beti ere, herri mailan jarraipena duten kirolak izaten dira. Hau da, elkarte baten aurreikusita daudenak. Horrela, Eskola kirola amaituz bat, aukera izaten da gustoko kirola egiten jarraitzeko. Dena dela, denboraldian zehar, beste kirol batzuk ezagutzeko aukera ere izaten dute.

KOPURUAK GORA EGIN DU

Une honetan, Aranzadi Ikastola, Mariaren Lagundia, San Martin eta Ipintza ikastetxeko 546 ikasle ari dira



Eskola Kiroleko iazko irabazle batzuk.

Eskola kirolean lehen maila eta D.B.Hko bigarren mailakoak. "Joan zen urtean baino demanda handiagoa izan da ikasturte honetan. Hasi batean partiduetara zein etortzen zen kontrolatzen hasi ginen baina gaur egun ez da beharrezkoa".



Astean zehar ikastetxeetan entrenamenduak izaten dituzte eta asteburuan hainbat partidu jokatzen dira.

Taldean artean dagoen kompetibitatea gero eta handiagoa dela dio Begoñak. "Partiduak oso serio jokatzen dituzte eta batzuetan

"Beti ere, herri mailan jarraipena duten kirolak aukeratzen ditu Eskola Kirol Kontseiluak"
BEGOÑA PAYAS

kezkatzekoa ere bada. Horren irtenbide bakarra partiduen emaitzak kontutan ez izatea da baina jendearen motibazio eta harrera ez izateke berdina izango".

ESPEZIALIZAZIO EZA

Eskola kirolak, gaztetatik hainbat kirol ezagutzen laguntzen duen arren, ez du kirol mota bakarrean espezializatzeko aukera ematen. Espezializazio hori lortzeko kirol elkarte batean egotea beharrezkoa da. "Ikuspena hori kontutan hartuz, zerbaitetan espezializatzeko balio ez duela esan behar dago, baina, bestalde, 12 urte dituen gazte bat kirol mota batean ibili izan bada eta edozein arrazoi dela medio kirol hori lagatzea erabaki badu, beste kirol batean hasteko aukera gutxiago dugu, aurretik gainontzekoak ezagutu ez dituelako".

Gazte bakoitzak kirol bat aukeratzen du 14 urte bete ondoren. Une honetan futbola da errege, baina gainontzeko kiroletan ere poliki-poliki izena ematen ari dira. Eskola kirolean, saskibaloia aukeratu zutenak asko izan ziren joan zen ikasturtean; aurrean, berriz, eskibaloiak egin du gora. "Saskibaloia eta eskubaloia erabakigarriak dira, eskola kirolak lagundu egin diela uste dugu. Hasi batean, gazte guztiak futboleko jokatu besterik ez zuten nahi eta piskanaka piskanaka gainontzeko kirolen inguruan interesa sortzen ari zaie asko eta asko". ■

Hernandez eta Ormazabal Euskadiko rally txapelketan bosgarren

German Hernandez (pilotoa) eta Aritz Ormazabal (kopilotoa) bosgarren postuan sailkatu ziren irailean amaitu zen Euskadiko Rally txapelketan. Irun, Azpeitia eta Bilbon jokatu ziren txapelketei zegozkien jardunaldiak. "Zorte handia izan genuen eguraldi kaskarra egin baitzuen eta horrek abantaila eman zigun. Kotxe txikia izatean arriskatzeko aukera aprobetxatu genuen. Bestalde, zaleen erantzuna eskertu nahiko genuke. Lasterketetara jende ugari gerturatu da eta laguntza handia eskaini digute".

German bigarren urtez ari da rallyak korritzen eta



Germanek eta Aritzek Opel Corsa GSI kotxea erabiltzen dute rallyetan.

mendi igoeretan ere parte hartu izan du. Aritzentzat, berriz, lehendabiziko urtea da. Aritzek, pilotoa gidatze-

ko ardura dauka. Une hone-tan otsailean hasiko den denboraldia prestatzen ari dira. ■

Eskuz binakako eta teniseko finalak

Joan zen domekan jokatu ziren eskuz binakako II. txapelketa eta banakako II. tenis txapelketa Bergarako kirol instalazioetan. Eskuzkoan Zubillaga anaiak izan ziren txapeldun eta bigarren postua Muguruza eta Gutierrezentzat izan zen. Tenisean, berriz, Roberto Irizar izan zen txapelduna eta bigarren saria Ismael Zubiak eraman zuen.



ERREGE BEZPERAKO HERRI KROSA

ATLETIKO ZALEAK elkarteak antolatutako urteroko Errege bezperako Herri Krosean hauek izan ziren irabazleak.

Senior maila

Manu Hurtado

Beteranoak

Aitor Eraña

Emakumezkoak

Mari Karmen Gartzia

Benjamin maila

Antxon Hernandez

Alebin maila

Neray Varela

Infantil maila

Juan Mari Mendoza

Kadete maila

Ion Beistegi

Junior maila

Iñigo Larrañaga

Iraundi nagusi Gabonetako txapelketan

Bergara Iraundi eskubaloitako taldeak Gabonetako txapelketa irabazi zuen joan zen zapatuan. Hiru taldek jardun zuten txapelketan. Lehendabiziko partiduan Arrasate 11-12 irabazi zion Aloña Mendiri. Ondoren, Aloñak 11-10 irabazi zion Iraundiri eta azken partiduan, Iraundik 15-12 irabazi zion Arrasateri.

Bergara bikain txantxikuarren kontra

Aspaldiko partez, Agorrosingo zelaia jendez gainezka azaldu zen igandean, txaranga eta guzti. Partidu garrantzitsua izan zen preferente mailako Aloña eta Bergararen arteko derbya eta etxekoen zorionerako, garaipena Bergaran gelditu zen 2-1eko emaitzarekin. Lehen zatian Aloñak bi gol egiteko aukera izan arren, Bergarako atezainak geldiketa bikainak egin zituen. Bigarren zatiko 52. minutuan oñatiarrek hartu zuten aurre baina 13 minutu geroago Lizarralde berdinketaren gola egin zuen. Garai-penaren gola Francok egin zuen 86. minutuan.

KONDE



Burdinate 1

943 76 02 57

P
A
N
A
D
E
R
O
K
U
A

Tramonix taberna

Bolu 30, behea. BERGARA. Tf. 943 76 44 49

Zurradero, 4. BERGARA. Tf. 943 76 72 38

KAFETEGIA

BAIXO

PINTXOAK eta asteburuetan eta jaiegunetan **RABAK!**
Eta orain, zatoz **REAL**aren eta **ATHLETIC**en partidua ikustera!

1. ETXEBIZITZAK

SALDU

Osintxu. 943 76 49 74.

S. Lorentzo. 943 76 31 16.

Osintxu. 939 93 68 41.

Pisu amueblatua Antonion. 943 76 56 20.

Pisu amueblatua Basarten. 943 76 32 90.

Aranerreka. 943 76 06 52.

S. Arrieta. 943 76 47 86.

Bolu. 943 76 01 80.

Basarte. 943 76 32 91.

Iraburu. 943 76 30 72.

Aranerreka. 943 76 50 79.

Matxiategi (garajearekin). 943 76 08 51.

San Lorentzo. 943 76 48 39.

ERRENTAN HARTZEKO

Bi neskek pisu bat hartuko genuke alokairuan Bolun: 943 76 56 03.

Pisua hartuko genuke alokairuan: 945 46 58 36.

Iragarki sailkatuak

Iragarkia DOAN jartzeko, zatoz Berrigarara edo deitu telefonoz, 943 76 03 97, martitzen eguerdia baino lehen. Berrigarak ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

Zure iragarkia ia 16.000 lagunek irakurri dezakete!

1. ETXEBIZITZAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Etxe konpartituak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

3. LOKALAK

Saldu
Erosi
Errentan emateko
Errentan hartzeko
Bestelakoak

4. LANA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

5. IRAKASKUNTZA

Eskaintzak
Eskaerak
Bestelakoak

6. IBILGAILUAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

7. ANIMALIAK

Saldu
Erosi
Bestelakoak

8. DENETARIK

Saldu
Erosi
Eman
Hartu
Trukatua
Galduta
Aurkitu
Bestelakoak

9. HARREMANAK

Agurrak
Kontaktuak
Deiak
Bestelakoak

2. GARAJEAK

SALDU

Garajea salgai Boni Lascurainen. 943 76 47 86.

B. Laskurain. 943 76 17 84.

Matzerreka. 945 23 48 07.

Artzamendi. 943 76 06 25.

Aranerreka. 943 76 28 07.

Zurradero. 943 76 02 89.

K.Gallastegi. 943 76 27 61.

Garaje bikoitza

S. Lorentzon. Telefonoa: 943 76 58 00.

Garajea saldu edo alokatzen da. 943 76 40 03.

Ibargarai. 943 15 15 81.

Ibargarai. 943 76 72 17.

Ibargarai. 943 76 27 22.

Ibargarain salgai edo alokairuan. 943 76 20 07.

ERRENTAN EMATEKO

Garajea, 2. solairua, alokairuan Boni Lascurainen. 943 76 28 05.

rainen. 943 76 28 05 nahiz 943 76 26 32.

Poligonoa. 943 76 21 12.

Bolu. 943 76 55 26.

Poligonoa. 943 76 32 58.

Poligonoa. 943 76 21 12.

ERRENTAN HARTZEKO

Garajea alokairuan hartuko nuke Zubietan. 943 76 47 50 (Jabi).

Garajea alokatuko nuke. 943 76 05 17.

3. LOKALAK

ERRENTAN EMATEKO

100 m²ko lokala alokatzen da Kruz Gallastegin. 943 76 11.

Taberna-jatetxea alokairuan. 943 76 41 71 / 76 37 80 (gauetz).

4. LANA

ESKAITZAK

Emakumea etxetz etxetxantxatzeko eskaintzen da. 943 76 26 73.

Neskek haurrak zaindu edo denda/bulego batean lan egingo luke. 943 76 26 82 / 76 57 34.

Neska batek, goizez, haurrak zaindu edo etxean lanak egingo lituzke. Deitu 943 76 46 07 telefonora.

Esperientziadun neska batek helduak zainduko lituzke. 943 76 32 16.

Neska edozein lanerarako prest. 943 76 35 35.

Erizain titulatuak geroak, zaharrak edo haurrak zainduko lituzke. Deitu 943 76 37 99 telefonora.

Etxeko lanak egin edo umeak zainduko nituzke egun erdiz. 943 76 25 81.


Neskek etxeko edo eskaldari lanak egingo lituzke. 943 76 70 15.

Esperientziadun neska batek, goizez, haurrak zaindu edota etxeko lanak egingo lituzke. 943 76 72 31.

ESKAERAK

Emakume euskalduna behar da 3 eta 5 urteko haurrak zaintzeko. 943 76 30 20.

ARREGUI, E.M.



AROSZTEGIA

AROSZLAN MEKANIKOAK
SUKALDEKO ARMAIRUAK
HORMA ARMAIRUAK
ATEAK, eta abar
TARIMAK, PARKETAK
NEOPRENOZKO JUNTADUN
EGURREZKO LEIHOAK
PVCzko LEIHOAK

Urteaga 20 ☎ 76 11 73
Erakusketa: Bidekurutzeta 38

**ALDI BATERAKO
ITZULTZAILEA
KONTRATATZEKO
eta
ITZULTZAILEEN
LAN-POLITSA OSATZEKO
DEIALDIA**

Oinarriak eta argibideak
Udaletxeko idazkaritzan
jaso daitezke

Izena emateko epea: urtarilaren
15eko 13:00etara arte



Begarako
Udala

**Lanerako
mutila behar da**

**18-21 urte bitartekoak
Ez da esperientziarik
behar**

Tf. 943 76 19 46

**GURIA
Taberna**

Bidekurutzeta 5
☎ 943 76 20 34

Goizez, ume bat zaindu eta etxeko lanetarako emakume bat behar da. 943 76 04 73.

5. IRAKASKUNTZA

ESKAITZAK

Filologia ingelesean lizentziatuak ingeles klaseak ematen ditu. 943 76 30 28 (Ana).

Lizentziatuak mate, fisika, kimika. 943 76 70 40.

Majisteriztan diplomatuak klaseak ematen ditu. 943 76 10 17 (Rosa).

Soprano profesionalak kantu klaseak ematen ditu. 943 76 65 24.

OHO eta BBB klaseak. Deitu 943 76 33 26 telefonora.

Ingeles klaseak. 943 76 25 79 (Nuria).

Majisteriztako ikasleak OHOKO klaseak ematen ditu. 943 76 37 94.

OHO eta BBBko 3. mailara arte. 943 76 32 93.

Lizentziatuak italiara klaseak eman edo itzulpenak egingo lituzke. Deitu 943 76 65 24 telefonora.

6. IBILGAILUAK

SALDU

Nissan Serena (diesel) furgoneta. 1.250.000 pezeta. 630 78 10 96.

Peugeot 306 (SS-AV) salgai. 943 79 78 32.

Ford Escort XR3 egoera onean. 943 71 44 45.

Opel Ascona 1.600 (SS-W) salgai. 943 76 05 13.

Fiat Tipo (SS-AJ) kotxea salgai. 943 76 50 05.

Opel Corsa 1500 diesel. SS-AT. 943 78 71 12.

Ford Sierra (SS-S) salgai. 943 76 18 28.

7. ANIMALIAK

SALDU

Pedigree oneko artzai aleman txakurkumeak salgai. 609 40 75 07.

Bi hilabeteko pertsa katukumeak salgai. Deitu 943 76 17 49 telefonora.

BESTELAKOAK

Txakur bat oparitzen dut. 943 76 23 83.

8. DENETARIK

SALDU

Sega Saturn bideo kontsola salgai. 6 joku. 943 76 40 00 (Mikel).

Ordenagailurako CDa, sonu tarjeta eta bozgorailuak salgai. 943 76 06 29.

Peugeot 309 kotxeak aluminiozko hagnak salgai. 930 687 635.

Eskiko materiala salgai: Dynastar taula, Tyrolia lotzekoak, Koflach botak (44-45 zka.) eta bas-toiak. 943 76 25 54.

Bigarren eskuko soinua. 943 76 47 76.

Super Nintendoa (5 joku) salgai. 943 76 49 38.

Bueltako tresilloa (tapi-zatua). la berria. Deitu 943 76 12 86 telefonora.

Super Nintendo kontsola jokoak eta mandoak. 943 76 10 44.

Super Nintendoa (5 joku) salgai. 943 76 00 85.

Nintendo kontsola, bi mando eta 100 joku. Deitu 943 76 38 71 telefonora.

Armairu klasikoa salgai. 943 76 10 94.

Pentium 120 ordenagailua salgai. 943 76 28 34.

EROSI

Faxa erosiko nuke. Deitu 943 76 61 15 telefonora.

Musika disko singleak erosten ditut. 943 52 65 77.

Hozkailu-furgoneta salgai (lanerako aukerarekin). 910 04 23 69.

GALDU

Guante bat galdu nuen Bergaran Gabon aurretik. 943 76 61 15.

AURKITU

Urrezko aliantza topatu dut, 9-9-64 fetxa eta inizialekin. 943 76 17 18.

9. HARREMANAK

KONTAKTUAK

65 urteko gizonetako batek emakume bat ezagutu nahi luke harreman serio bat hasteko. 943 76 30 27.



Langai

Euskal Lan Zerbitzua

AIRE EGOKITUAREN INSTALATZAILE-MUNTATZAILEA
Donostialdea. 14845/3

MEKANIKARI PIOIA
Bilbo. 15499/2

DELINEANTEA
Donostialdea. 14633/4

MEKANIKARIA
Bilbo. 15271/3

KUTXAZAINA
Bilbo. 14707/2

INFORMATIKA IRAKASLEA
Bilbo. 15299/3

FRUTA-SALTZAILEA
Durangaldea. 14908/2

PINTOREA
Ibai eskuinaldea. 15322/3

ARRAIN-SALTZAILEA
Bilbo. 14918/3

FRESATZAILEA
Gernika-Bermeo. 15346/3

TXARKUTEROAK
Ibai ezkerrean. 15240/2

CNC LANGILEA
Gernika-bermeo. 15344/3

FRUTA-SALTZAILEA
Ibai eskuinaldea. 15238/1

GARBIKETARAKO PERTSONA
Bilbo. 15174/4

INJINERU TEKNIKOA
Deba Behea. 13873/1

Lan eskaintza hauetakoren bat interesatzen bazaiztu, erreferentzia hartu eta eskatu informazioa.

LANGAI Udaletxean: astelehen, eguazten eta eguakizetan 9:00etatik 13:00etara. Telefonoa: 943 77 91 65, Maria Jesus Unamuno.

Fiskala Lanekoa Kontablea Aseguruak

AHOLKULARITZA

TBG. Ander Alberdi Lete Zuzenbidean lizentziatua

Matxiategi 36, behe. BERGARA
Tf. 943 76 90 83/Faxa 943 76 92 04

TRANSBER

Era guztietako kargak Iraultsiak-Grua

Matxiategi 36, behe BERGARA
Tf. 943 76 90 83. Faxa 943 76 92 04

Sugoi

ERLOJUAK, ARTIKULO ELEKTRONIKOAK, KALKULADORAK...

Irizar pasealekua 2 behe
☎ 943 76 59 54 BERGARA

POL-POL

Taberna

☎ 943 76 07 78

GOIERRI AUTOGIDARIEN ESKOLA

Edozein eratako gida baimenak lortu ditzakezu

Fraiskozuri plaza 5 Tf. 943 76 41 50 BERGARA

DEBA GARAIA

INMUEBLE ETA FINANTZA AGENTZIA

Bergara / Arrasate / Elgoibar
Telesforo Aranzadi 2 behea
943 76 21 80 / 943 76 06 37

Taun-Taun txotxongilo taldeak "Txio-txioka" bere azken lana erakutsi zuen Gabonetan

Aurre estreinua Kartzela Zaharrean egin zen haur eta gaztetxoentzat

Taun-Taun Txotxongilo taldeak "Txio-txioka" azken muntaia estreinatu zuen Gabon jaietan Kartzela Zaharrean. Helduei ez ezik, haur eta gaztetxoei bereziki zuzendutako lana, 1999. urtean zehar herriz herri erakutsi nahi dute Taun-Taunekoek.

Jardunek Kartzela Zaharrean Gabonetan antolatutako ekintzen inguruan egin zuen Taun Taunek bere azken lanaren aurre estreinua. Neska mutiko gaztetxoan aurrean egin zuten debuta, haur eta gazteei zuzendu baitiete bereziki Bernardo Atxagaren ipuin batean oinarritutako 50 bat minututako obra.

Taun Taunek helduei zuzendutako muntaiak landu izan ditu gehienbat. Azkena, "Ubu Babel" lan konplikatu, anbizioso eta ausarta bezain interesgarria, ikuslearen aldetik oso harrera ona izan ez duena, eurak nahi baino toki gutxiagotan erakutsi baita, baina oso kritika onak jaso dituena, batez ere Brasilen. Oraingoan, ordea, erregistroz aldatu eta haurrei zuzendutako lan batekin datoz. Eurak dioten moduan, "guztientzat, publiko familiarrareztat egindako ikuskizuna da. Haurrei zuzendutako txotxongiloen jaialdi asko izaten dira eta uste dugu lan berri hau aurrekoa baino toki gehiagotan ikusiko dela".

ATXAGAREN IPUINEAN OINARRITUTA

Bernardo Atxagaren "Txitoen historia" ipuinean oinarritu dira lan berrirako. "Hasiera batean Ana Maria Matuteren ipuin batekin pentsatu genuen, baina

konplikatu samarra zen horrekin txotxongiloentzako istorio bat moldatzea eta Atxagaren honi heldu genion, moralejarik gabeko ipuina zelako eta ondo zetorkigula pentsatu genuelako" diosku Itxaso Azkaratek, Taun-Tauneko kideetako batek.

Lan berri honetan Itxasok berak, Karlos Odriozolak eta Iñaki Matak hartzen dute parte eta Santi Ezkurrak egiten ditu argi eta soinu teknikari lanak. Halere, betiko kolaboratzaileen laguntza izan dute. Bestalde, Kukuma hankapalu tadeko Mikel Ibarzabalek egin ditu txotxongiloak.

"Txio-txioka"n zineaz maitemunduta dauden hiru txitoren gora-beherak kontatzen dira. Espektakulo bisuala da

erabat, oso bariatua, eta ilunetan ikus beharrekoa, argiek garrantzia bereziki dutelako. Oraingoan manipulazio teknika bat baino gehiago erabili dute: moptet, argi beltzak, itzalak... Argi beltzen teknika, lehen aldiz erabili dute Taun-Taunekoak. Teknika ikusgarria da, publikoak asko apreziatzen duena. Bestalde, pelikula labur bat ere sartu dute muntaian, txitoek ikusten duten pelikula bat hain zuzen ere.

Urtea ilusio handiarekin hasi dute Taun-Taunekoek. "Txio-txioka" ahalik eta toki gehienetan erakustea da euren asmoa, baina ez dute publiko nagusia ahaztu nahi. Oraintsu hil den Brossa idazle katalanaren lan bati helduko diote agian. ■



Iñaki Mata, Itxaso Azkarate eta Karlos Odriozolak manipulatu zituzten txotxongiloak muntaia berrirako.

Usoa Pub




☎ 943 76 38 57
Irala 1



Simon Arrieta plaza 2A behea ezkerra.
Tf. 943 76 71 19



OZAETA JAUREGIA
Tf.: 76 10 55 Faxa: 943 76 20 29



LASA
Jatetxea

kronika



"Aukeran" ikuskizuneko Akilimarro koreografia ikusgarriaren irudi bat.

Hika antzerki taldeak "Xagukumeak" erakutsi zuen Kiroldegian

"Hika" antzerki taldeak "Xagukumeak" lana erakutsi zuen abenduaren 29an Gabonetan Kiroldegian jarritako jolas parkean. Mikel Laskurain, Miren Gojenola eta Belen Cruz aktoreek neska-mutiko gaztetxoen barre algarak sortarazi zituzten eta eurekin batera jolas-teko aukera izan zuten. Mikel Laskurain bergararra erabat nekatuta aurkitu genuen emanaldi amaieran eta aurtengo urterako "Hika" antzerki taldeak eskuartean dituen proiektuen berri eman zigun. Une honetan, kalean eta aretoetan eskaintzeko "Xagukumeak" muntaiaz gain, orain dela pare bat urte estreinatutako "Hau komeria" musikalarekin ari dira, baina beste lan berri bat prestatzen ari dira. Ia amaituta dute eta Aste Santu aurretik estreinatuko dute, seguruena Bilboko Kafe Antzokian. Agurtzane Intxaurrek idatzitako "Arrautza delikatuak" da obraren izena eta Mikel Laskurain eta Teresa Andonegi izango dira aktoreak. Arrautza eta euskararen arteko metafora bat da, bata zein bestea baitira delikatuak eta biak ondo zaindu beharrekoak. Mireia Gabilondo bergararrak egin ditu zuzendari lanak.



Dantza tradizionala berritzen

Edu Muruamendiarazen "Aukeran" ikuskizuna

Edu Muruamendiarazek eta bere dantza taldeak "Aukeran" dantza ikuskizuna eskaini zuten joan zen zapatuan Jam aretoan. Ordu eta erdiko saioan, dantza tradizionala eta txalaparta uztartuz, ikuskizun bikainarekin gozatu ahal izan zuten bertaratuak.

Penagarria benetan gaur egun eskaini daitezkeen dantza tradizionalaren inguruko koreografia ederrenak ikustera hain jende gutxi bertaratu izana, 70 bat baino ez baitziren izan zapatuan Jamera hurbildu zirenak. Taula gainean sei dantzari, hiru bikote, guztiak goi mailakoak eta dantza eskola gorenako eta ospetsuenetan trebatutakoak: Marijo Salsamendi, Iurre Aranburu, Eli Alberdi, Eneko Dorronsoro, Aiert Beobide eta Edu Muruamendiaraz. Eurekin

batera, Sergio Lamuedra eta Hodei Lizaso txalapartariak, abilak benetan era askotako erritmoak sortzeko.

Eduk eta bere taldeak azken bi urteotan Euskal Koreografo Berrien Erakusketarako landutako "Aukeran" eta "Akilimarro" koreografiak dira "Aukeran" ikuskizunaren ardatz nagusiak; horretaz gain, beste zortzi dantza koreografia ere eskaini zituzten, musika herrikoian edo beste euskal abeslari edo taldeen musikan oinarritutakoak.

"Aukeran" ikuskizuna Euskal Herriko hainbat herritan erakutsi da arrakasta handia lortuz. 1999rako koreografia berria prestatuko du bergararrak. "Ez gara profesionalak eta medio gutxirekin egindako muntaia da "Aukeran", baina dantza tradizionalaren munduan puntaren puntan aurkitzen gara" esan digu Edu Muruamendiarazek. ■

RPS: 292/98

Ψ
NARE
psikologoak

HAURRAK-HELDUAK-BIKOTEAK

Isasi 17, 1-B EIBAR
Tf. 943 20 05 95

LASAGABASTER

ZURE KONFIDANTZAKO DENDA.

Zerkaosteta 1 eta 2 ARRASATE Tf. 943 79 27 27 / 943 79 13 55

denborapasa / LUMA

1	2	3	4	5	6	7	8	9	10
2									
3									
4									
5									
6									
7									
8									
9									
10									

Ezker eskuma

1. Maisuari dagokion trebetasun. 2. Santutegi batera erromerian doana. Lehenengoa. 3. Naukate. Tona. Kontsionante errepikatua. 4. Hareazko meta. Garai. 5. Idi, hitz elkarketan. Nire. Bokala. 6. Zelatan ibiltzen dena. 7. Areagotzeko partikula. Azkenekoa. Itxura. 8. Polit. Barazki mota. 9. Bizkaiko herria. Röntgen. Uharteak. 10. Erail. Ortze.


Goitik behera

1. Mendigoizaleak. 2. Araudiak. 3. Gipuzkozko hiria. Infin., lortu. Bokala. 4. Apaizen jantzia. Argi, hitz elkarketan. 5. Haur. Bi egun barru. Uranioa. 6. Infusio mota. Garra. Naizen hau. 7. Asto arra. Arazo hitzaren kontsonanteak. 8. Euskal atzizki femeninoa. Ikur. 9. Bokala. Holmioa. Iparraldean, esna. 10. Gura. Zorro haundi.


Soluzioa

10 Nahia. Zaku. 9 U. Ho. Atzar. 8 Astorra. Rtz. 8 Sa. Senale. 7 Luma. Ezt. U. 6 Te. Sua. Ni. 6 Tona. Lor. A. 4 Sotana. Art. 5 Mendizalea. 2 Arautgiak. 4 Goitik behera. 3 Er. R. Itak. 10 Akatu. Zeru. 2 Ego. 2 Antz. 8 Liran. Aza. 9. 8. Neure. A. 6. Zelataria. 7. 7. Neure. T. Hn. 4. Dura. Sasoi. 6. Mardasun. 2. Erromesa. A. 5. Ezker eskuma.

bonofotoa



Miguel Angel Elkoroberezibar



Bergarako erdialdeko zein kaletan daude bi ate hauek?

Jarri Bonofotoko eta Galde Debaldeko erantzunak behean eta asmatzen dituzuenon artean afari ederra zozketatuko du BERRIGARAK. Aste honetan irabazten duenak eta berak aukeratutako lagunak **Zabala** jatetxean izango dute afaria.



Aurreko aleko saria, **Amaia Beistegirentzat** izan da. Beheko Taberna jatetxean bi lagunendako afaria. Zorionak Amaiari! Galderen erantzun zuzenak hauek ziren: Bonofotoa: **Inazio Unzeta** Galde Debalde: **1-A, 2-B, 3-B**

BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1: _____ 2: _____ 3: _____

Izena-deitura: _____

Telefonoa: _____

Ekarri edo bidali txartela **EGUAZTEN EGUERDIRAKO** Berrigarara! AFARI EDERRA IRABAZ DEZAKEZU!

ZABALA JATETXEA

Labegaraieta z/g
Tf. 943 76 42 57

Kubatarra jaiotzez, Freddy Rivasek (23 urte) urte eta erdi darama gure artean. Arrasaten bizi da eta Bergarako Artekale pizzerian ari da tabernari lanetan eta etxez etxe pizzak banatzen. Saltsa ikastaroak ere eman ditu.

Freddy Rivas

Ondo moldatu zara Euskal Herrira?

Primeran!!

Zer nabarmenduko zenuke?

Emakumeak eta bazkaria.

Gutxien gustatzen zaizuna?

Politikoki nabarmentzen diren bi bandoen izaera itxia, nahiz eta bietako bat, zorionez, irekitzen hasi den.

Zela ikusten gaituzu euskaldunok?

Jende jatorra dago baina konfidantza irabazi beharra dago.

Kuba faltan botatzen duzu?

Bai, berarekin pentsatzen dudan bakoitzean, sarritan.

Buelatzeko asmorik?

Oraingoz ez. Lehenbizi hemengoa sentitu nahi dut.

Zelakoak zarete kubatarrak?

Eguzkia bezalakoak, bero-beroak.

Ez daukazu kubatar itxurarik...

Agian nire birraitona asturiarra zelako.

Fidel bai ala ez?

"Depende, ¿de qué depende?"

Laneko gauzarik onena?

Jendearekiko harremana.

Eta txarrena?

Pizza berandu heltzeagatik norbait haserretzen denean.

Astero zenbat pizza banatzen dituzu?

Astebukaeretan 50etik gora.

Pizzarik eskatuena?

Artekale izenekoa; arraultzak, haragia, piparrak eta gazta dituen.

Zein motor erabiltzen duzu?

PGO motor bat, 50 cc.takoa.

Motorrarekin ibili behar izatea arriskutsua al da?

Bai oso, errepidea bustita edo izoztuta dagoenean batez ere.

Gehienezko abiadura zenbatekoa?

Herri barruan, 45 Km./h.

Lana gaez ala egunez?

Gaez normalean.

Afizio bat?

Informatika, PCak.

Juergazalea zara?

Lanik ez daukadanean, bai.

Zer behar da saltsa ondo dantzatzeko?

Musika sentitzea eta beste lenguaia batean adieraztea, dantzan.

Irakurritako azken liburua?

Paco Ignacio Taibok "Che"ari buruz idatzitako biografia irakurtzen ari naiz.

Filme bat?

"El padrino"ren trilogia.

Urtaro bat?

Negua. Iaz edurra ezagutu nuen, Urbian. Erabat gozatu nuen.

Zer eskatu diozu urte berriari?

Kiniela asmatzea.

Euskara ikasteko asmorik?

Noski!! [euskaraz]. ■



INGELES
IKASTARO INTENTSIBOAK

FRANTSESA
ALEMANA

Urtarrilaren 18tik martxoaren 26ra.

- BI HILABETE ETA ERDIKO IRAUPENA.
- EGUNERO BI EDO BI ORDU ETA ERDI.
- GOIZEZ NAHIZ ARRATSALDEZ.

ETA BESTE HAINBAT
IKASTARO ERE BAI



INFORMAZIOA:

Bergarako UNED. S. Martin plaza z/g (3. pisua)

☎ 943 76 06 87

Matrikula-epea urtarrilaren 11tik 15era!

Bulego ordutegia: 10:30-13:00 eta 16:30-19:30.



Tximista txapeldun

Gaur egun Ipintzako Futbol Txapelketak eta Labegarietako Futbito Txapelketak bezala, ikusmin handia sortzen zuen orain dela urteak Seminarioan jokatzen zen futbol txapelketak. Herriko mutil gazte gehienek hartzen zuten parte txapelketan, baina gutxi batzuk izaten zuten irabazteko ohorea.

Argazkian 1972ko txapelduna agertzen dira, Tximista taldea. Seminarioan Dominikoe-kin azken urtea ikasten zebiltzanek osatutako taldea, finalean Antzuolako Chimborazo taldeari penalti jaurtiketetan nagusitu zitzaion. Arauzko denboran hiruna amaitu zuten eta, esan bezala, penalti jaurtiketetan bergararrak

ibili ziren finago. Tximistakoek talde indartsu osatzen zuten, bi urtetan jarraian eraman baitzuten txapelketa.

Honetxek dira argazkian agertzen direnak: **Zutik:** Fray Jacinto, Gregorio Ortiz de Urbina, Roberto Larrañaga, Xabier Latorre "Tomtxo", Jesus Mari Barrena eta Jose Vicente Santa Maria.

Makurtuta: Aitor Linazisoro, Jose Jabier Sesma, Juan Iñazio Igartua, Jose Migel Solana, Jose Luis Fernandez "Maure", Rafa Sanchez eta Jose Iñazio Pueyo.

Argazkia: Urbina



☎ 943 76 20 61



zumelaga
JATETXEA
ZERBITZU, KALITATE, KANTITATE ETA
PREZIOAN PAREKORIK EZ!
San Antonio 5 BERGARA ☎ 943 76 20 21



MEMESA
INDUSTRI HORNIDURAK
Tf. 943 71 24 25



Ihau terietako
Makilajeak

A M P A R O

ILEAPAINDEGIA

ESTETIKA

IRATXE AZKARATE - ESTETIKA

Eta gainera...

- Ezpain, begi eta bekainetako mikropigmentazioa (denbora luzerako makilajea)
- Tatuajeak




Hainbat estentsio mota:
Lanazkoak, kizkurrak, trentzak...

Boni Laskurain 2-4, behea. Bergara. Tf. 943 76 56 05

ALZAS elektragintza


Korronte alterno eta zuzeneko makina elektrikoen eta abiada haundiko induzituaren **konponketa eta bobinaketa**



Antigua auzoa 3, 20577 ANTZUOLA • Telefonoa: 943 76 64 14 • Faxa: 943 76 62 99

ETXE MOBEL

MUEBLES ALTZARIAK



BI SOLAIRUTAKO ERAKUSKETA LOGELAK-SALOIAK

Araba Etorbidea 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tf. / Faxe: 943 79 41 82

ARRASATE

GRUPO RKAUZ

FAGOR

ALTZARIAK

SUKALDE INTEGRALA



Araba etorbidea 20 • Tf. / Faxe: 943 79 23 51
ARETXABALETA

Mitarte 3 • Tf. / Faxe: 943 77 04 55
ARETXABALETA